



Julen Mendoza
Errenteriako alkatea

**«Herrietako ekimenek
goi-politika
desblokeatu dezakete»**

**Auto
elektrikoa**

Europaren
apustu
estrategikoa
tokitan dago
oraindik

**Juan Carlos
Mujika**

Opus Deiren
Euskal Herriko
komunikazio
arduraduna

**Bernardo
Atxaga**

«Nire lanean
inspiratzaileagoa
zait Amerika,
Europa baino»

**Lourdes
de Leon**

«Elebitasun
orekatua
ikusi dut
Chiapasen»

Sagardotegiak

Otorduez gain,
bisita gidatuak

MUGARRI BAT KONPONBIDEAREN ALDE



"Giza Eskubideak. Konponbidea. Bakea"
Bilbo, 2014ko urtarrilaren 11

2013-12-28. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak urratsak iragarri zituen espetxetik ateratzeko bidean, eta gatazkaren konponbiderako lanean ari den Foro Sozialaren gomendioei jarraituz.
2014-01-08. Guardia Zibilak EPPKren bitartekari taldeko zortzi kide atxilotu zituen.
2014-01-10. Eguerdian, Espainiako Auzitegi Nazionalak euskal presoek eskubideen aldeko urteroko manifestazioa debekatu zuen.
Arratsaldean, hurrengo egunerako manifestazioa deitu zuten EAJ, Sortu, EA, Geroa Bai, Aralar, Alternatiba, AB, ELA eta LABek.
2014-01-11. Bilbon 130.000 pertsona ateratu ziren kalera, Euskal Herrian egindako manifestaziorik handienetako batean.

urtarrilaren 11ko
manifestazio
historikoa

Dani Blancoren
argazkiarekin
posterra (42x57cm)

ARGIA BEREZIA

- ☐ Joseba Egibarri eta Joseba Azkarragari elkarrizketak.
- ☐ Amaia Izkoren iritzi artikulua.
- ☐ Euskal Herriko gehiengo soziala batu duen gertakariari buruzko analisiak.



Manifestazioaren
posterra eta
babes hodia

5€
3€ harpidedunentzat



Manifestazioaz
zenbaki berezia
eta posterra (tolestua)

3,90€



Manifestazioaz
zenbaki berezia,
posterra eta
babes hodia

8,90€
6,90€ harpidedunentzat

Eskaerak
© 943 371 545
denda@argia.com

argia
Garai interesgarriak
Begirada independentea



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko otsailaren 2a, 2.401. zenbakia

ASTEKO GAIA

AUTO ELEKTRIKOA Mamitzen ez den hautua.

JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 4

PERTSONAIA

JUAN CARLOS MUJICA: «Errespetatu bai, baina ez gaituzte maite».

REYES ILINTXETA / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Engainatu egin ninduten, eta familia osoa geratu gara langabezian. LANDER ARRETXEK / 15

SAGARDOTEGIAK Trikuharri eta sarioak ere Larre-Gain sagardotegiko menuan. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

URKULLU, FABOREZ, KASU EGIN AXULARRI! FERMIN ERBITI / 20

EUSKALDUNA IZATEA KIMETZ ARANA BUTROE / 21

ABORTUA ETA LAIKOTASUNA JUNE FERNANDEZ / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Dena da botere kontua. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Joxepa eta Roxaren Bertso Eguneke kronika.

ELI PAGOLA APEZETXEA, MAIALEN AKIZU BIDEKAIN / 21

ERDIKO KAIERA

BERNARDO ATXAGA: «Nire barruko Nevadak du indar handiena liburu honetan». MIEL A. ELUSTONDO / 24

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Tabernaren epelean hilero puntuka.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

JULEN MENDOZA: «Udalaren lanik garrantzitsuen bizikidetza sustatzea da». MIKEL ASURMENDI / 37

OCTAVIO ALBEROLA SURIÑACH: «Antifrankistoi bizkarra eman zigun Castrok». AITOR AZURKI / 40

LOURDES DE LEON: «Elebitasun orekatua ikusi dut Chiapasen, ez espainolak tzotzila ordezkatzeko duela». MIEL A. ELUSTONDO / 42

PRENTSA Kalitate azterketan, ARGIA Europako handien gainetik. JON TORNER ZABALA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Jacques de Groote, gaurko lapur handien maisu zaharra. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Mamitzen ez den hautua

Joan den hamarkadan zeresan handia eman zuen ibilgailu elektrikoak.

Petrolioaren garestitzeak, aireratzen den karbono dioxidoa murriztu beharrak eta teknologiaren abiadurak etxe askotara ekarriko omen zuen ibilgailu elektrikoa, hamarkada honen amaierarako.

| JOXERRA AIZPURUA SARASOLA |

EUROPA, Ipar Amerika eta Japonia azaltzen ziren prozesu horren buruan. Egun, ordea, demagun Parisa ibilgailu elektrikoak heldu nahi izatea abentura ausartegia izango litzateke. Ez dugu esango ezinezkoa denik, baina bidaia gogor baldintzatuko luketen zenbait ezaugarri hartu beharko genituzke kontuan. Batetik, ibilgailu elektriko estandarrek 200 km inguruko autonomia duela. Bestetik, autoaren bateria kargatzeko guneak ez direla gasolindegia bezain agerikoak, eta ez direla hain sarri aurkitzen. Gainera, gune horietako

batera iritsita, agian zenbait orduz okupatuta egon litekeela, edo mantenu ezagatik kaltetuta. Odisea izan liteke, beraz, Pariseko asmoa.


Bakarren batek esan lezake ibilgailu elektriko hiriguneetarako dagoela pentsatuta, modu horretan erakuts lezakeela epe motzeko errentagarritasuna. Baina, hala balitz, non ditugu karga azkarrerako karga-gune publikoak? Edo solairu anitzeko etxeetan bizi eta autoa kalean uzten dugunok, non ipiniko genituzke argindarrez kargatzeko gune partikularrak?

Eta kasurik onenean, ibilgailu elektriko eskuratzea erabakiko bage-nu, salneurria izango genuke hurrengo oztopoa, ibilgailu elektrikoak besteak halako bi balio baitu ia-ia.

Ibilgailu elektriko dela eta, amaitu berri den urtearen hondarrean Europako Batzordeak 2020 urterako aurreikuspenak zehaztu zituen eskatu zion estatu kide bakoitzari. Datuen zain, ondoko grafikoan islatu zituen Batzordeak bere ametsak. Alegia, usteak erdi ustelak atera zaizkiola.

Ipar Amerikan oso antzekoa da egoera. Kanadan 4.000 ibilgailu elektriko inguru daude gaur egun, baina 2020an 600.000 alera heldu nahi luke-te; Kaliforniako estatuan 33.000 ibil-

Estatuek 2020rako aurreikusiak




Karga-guneak 2011n




IBILGAILU ELEKTRIKOAREN ETORKIZUNA EUROPAN

kusitako karga-guneak

Europako Batzordearen proposamena: 2020. urtean estatu bakoitzak zenbat karga-gune izan beharko lituzkeen



*2015ean



Iturria: El Pais

gailu elektriko daude eta hamarkada honen amaieran 1.500.000 izan nahiko lituzkete.

Kopuruak kopuru, aipatutako herrialde horietan, eta baita Norvegia eta Suedian ere, badago zenbaki hotzek azaltzen duten beste datu interesgarri bat: 2013an saldu ziren ibilgailuen %1etik gora elektrikoak izan dira, eta kasuren batean %3ra iritsi da.

Japonian, Nissan, Toyota, Honda eta Mitsubishi enpresek, gobernuarekin elkarlanean, 4.000 karga-gune azkar eta beste 8.000

karga-gune motel jarri nahi dituzte epe motzean. Konpromisoa hartu dute, bestalde, hamarkadaren amaierarako matrikulatutako autoen %15-20 elektrikoak izan daitezzen.

Kopuruak txikiak izanik ere, adierazgarriak dira, batez ere munduan aurreratu den estatuetatik datozelako. Estatu horietan ibilgailu elektrikoaren alorrean gertatzen ari den joera gainerakoontzat adierazgarria izan daitekeelakoan nago, nolabaiteko bultzada eragin baitezake gurean datozen urteetan.

Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Batzuen eta besteen kostuak

IBILGAILU ELEKTRIKOAK eta hibridoak ibilgailu termikoak baino garestiagoak dira, batzuetan bikoitza izan liteke prezioa. Baina ibilgailuaren iraupen osoa gogoan hartuta, hau da, ibilgailua gure eskuetan dagoen bitartean dituen mantenu-kostuak eta gurpil aldaketa kostuak kontuan hartzen baditugu, zein da benetan salneurrian dagoen aldea?

Ondoren datozen bi taulaotan galdera argitzen saiatuko gara.



Motor mota	120.000 km-ko mantenu-kostua eurotan	Motor mota	Gurpilek eragindako kostua eurotan, 120.000 km-ko
Diesel	2.143	Diesel	926
Gasolina	2.038	Gasolina	869
Elektrikoa	1.156	Elektrikoa	600
Hibridoa	3.200	Hibridoa	1.124

Gerta daitezkeen matxurak kontutan hartu gabe, argi ikusten da ibilgailu elektrikoak direla mantenu-kostu txikienekoak, bai motorrari dagokionean, baita gurpilei dagokienean ere. Kosturik handiena, aldiz, hibridoek dute.


Ibilgailu elektrikoek pieza mekaniko gutxiago dituzte mantentzeko, eta gainera, ohiko ibilgailuak baino arinagoak direnez, gurpilek iraupen luzeagoa izaten dute. Aldiz, ibilgailu hibridoek bi motor mota

kiagoak izan, ibilgailu elektrikoek kostu totala (erosketa+mantenua) ibilgailu termikoena baino askoz ere handiagoa da.

Arestian aipatu kostuei erregaiarena erantsiz gero, ia ziur ibilgailu elektrikoa merkeagoa aterako zaigula termikoa baino. Hala ere, beharrezkoa izango da batetik elektrizitaterako karga-gune sarea hedatzea, eta bestetik ibilgailuen autonomia areagotzea, jautzia eman ahal izateko.

dituzte, eta elementu gehiago mantenu-rako. Ohiko ibilgailuak baino astunagoak ere badira eta gurpilak lehenago higitzen dira.


Dena den, nahiz eta ibilgailu elektrikoek mantenu-kostuak edozein ibilgailu termikorenak baino askoz ere txi-






Motor elektrikoaren funtzionamendua

Motor bakarrekoa



Bi motordun ibilgailua



San Nikolas IKASTOLA



IKASMAILAK (1-16 urte)

- Haurtzaindegia
- HH, LH eta DBH
- Gela Bereziak: txikientzako logelak, psikomotrizitatea, laborategia, teknologia, musika, informatika (ekipo guztiak internetera konektatuta)

ZERBITZUAK

- Haurtzaindegia laborala (2-5urte): 07.30-18.00
- Jantokia
- Autobusa (Getxo, Berango, Urduliz, Leioa, Areta...)
- Aniztasunari arreta berezia: psikologia, auxiliarrak, terapeutika irakasleak, orientatzailea...
- Liburutegi gidatua
- Eskolazkanpokoak: ingelesa, pianoa, solfeo, baleta, trikitixa, koral, kirolak...
- Udako eskaintzak: haurtzaindegia, egonaldiak, ingelesa ikastaroak...

Arene Azpi 15 · GETXO (Bizkaia) · T 944 305 478 · F 944 305 477 · ikastola@sanikolas.net

Ibilgailu elektrikoaren arazo ekosozialak

IBILGAILU ELEKTRIKOAK emititzen duen karbono dioxidoa hutsaren pareko dela jakin badakigu, baina energia elektrikoaren nonbaitetik ateratzea behar da. Egunen batean, gure automobil parke osoa elektrikoak balitz, eta horiek higitzeko baliatutako energia elektrikoak gaurko moduan sortuko balitz, are eta karbono dioxido gehiago emitituko genuke. Beraz, ibilgailu elektrikoak ugaltzearekin batera, paraleloki, energia elektrikoaren sortzeko bide alternatiboak sendotu beharko dira.

Ibilgailu elektrikoak ez dira zatitatuak, kutsadura akustikorik ez dakarte. Berri ona da, itxura batean behintzat, baina gai honek badu arazo bat. Hirietan batez ere, zarata-maila bat ez da txarra, instantiboki auto bat hurbiltzen ari zaigula jakiteko; gero eta gizarte zaharragoa izango garenez, entzumen arazoak ere gero eta zabaldutakoak izango dira, eta horren

ondorioz soinu seinale gehiago jarri beharko dira hirietan istripuak ekiditeko.

Ibilgailu elektrikoaren bihotza bateria da, baina egun bihotz hori ahul samarra da, hau da, autonomia mugatua du, ez du birkargartze kopuru handirik onartzen, eta gainera garestia da. Baterien ikerketa pil-pilean dago eta egunez egun iraupen eta autonomia luzeagoko bateriak asmatzen dira, baina zenbat eta bateria hobea lortu, orduan eta garestiagoa izango da, eta ez dugu ahaztu behar jada bateriak oso garestiak direla, ibilgailuetako zatirik garestiena proportzioan.

Halaber, ezin ahaztu baterien hobekuntza konplexutasunari lotuta dagoela, eta konplexutasuna material sofistikatuak, aldi berean; hau horrela izanik, baterien birziklapena gero eta arazo larriagoa izango da.

Alderdi ilunok ez dute ezkertasuna islatu nahi, gauzak hasieratik ongi egin behar direla adierazi baizik.

Izan ere, ibilgailu elektrikoak lozorroan egon liteke, baina haren eragina, aski nabaria izan da ohiko ibilgailuaren teknologian.

Hala, egungo ibilgailuek orain hamarkada batekoek baino %15 gutxiago kontsumitzen dute, eta bestalde, hibrido deiturikoak gero eta gehiago dira. Itxura guztien arabera, auto hibrido horiek izan daitezke ohikotik elektrikorako jauzia erraztuko dutenak.

Ibilgailu hibridoek bi motor dituzte, termikoa edo erregai fosil bidezkoa eta elektrikoak. Normalki motor termikoa motor elektrikoari eragiten dio eta honek gurrupilak higiarazten ditu; ibilgailu mota honen energi iturria fosila baldin bada ere, motor termiko txikiagoa behar du eragiteko, eta beraz kontsumoa ere txikiagoa da.

Bestalde, teknologiaren ikerketak aurrera jarraitzen du, eta betiere ohiko automobil ekoizleen eskuetan dagoenez, aurrerapenak gorde egiten dituzte, eta haien interesen arabera maneiatzen. Hala ere, jakin badakigu aurrerapenak arlo askotan ari direla gertatzen, eta bat aipatzearren, hidrogeno bidezko motorrena nabarmenduko genuke; batetik, teknologia horrek izugarritzko aldaketa eragingo lukeelako automobilaren autonomian, eta bestetik, energi lehengaia ura izaki, unibertsa eta merkea izango delako. Azkenik, ekologiaren ikuspuntutik ere ezin garbiagoa izango delako, prozesuaren hondarra bera ere, ura izango baita. Egia da



uretatik hidrogeno soila ateratzea ez dela txantxetako lana, baina, aipatu bezala, nahiz eta ezkutuan eraman, teknologia aurrera egiten ari da. Zentzu horretan, esan Toyotak FCV deituriko modelo plazaratuko duela 2015. urtean AEBetan, eta agindu dutenez, 500 km-ko autonomia izango du.

Eta Euskal Herrian zer?

Ezagutzen ditugun saiakera nagusiak Hiriko edo Epsilon deiturikoak ditugu. Izen horiek porrota eta kutsu politiko interesatua duten proiektuari lotu izan direnez, une honetan gaia erabat utzirik dago gure inguruan; aurreko urteetan ibilgailu elektrikoaren inguruan gertatutako ustelkeriak ia erabat eten du bidea. Hala ere, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) webgunean irakurri dugunez, 2020rako Euskadin ibiliko diren ibilgailuen %10 elektrikoak izatea nahi luke administrazioak.

Mundu osoko tren eta metro gehienak elektrikoak dira, beraz elektrizitateak edozein ibilgailuren gurrupilak higitzeko balio du. Energia fosilak mugatuak dira, eta euren errekontzitatik berotegi efektua areagotuko dugu. Aurreko bi ideia horietan oinarrituz, hamarkada batzuk besterik ez ditugu gure garraiabiak erabat iraultzeko, baina horretarako epe ertaineko estrategia ekonomikoak finkatu beharko ditugu, iraultza horren gidaritzan izan nahi badugu. Eta Euskal Herrian ezin dugu denborarik galdu. ■



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza

(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 145 € / Iparr Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA

20160 LASARTE-ORIA

(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

ZELOPAREA
HEMENDI VITI

JUAN CARLOS MUJICA

«Errespetatu bai, baina ez gaituzte maite»

Opus Deiren Euskal Herriko komunikazio arduraduna da,
Opuseko “komertziala”, esan genezake.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Donostiarra sortzez, familia leitzarra duzu eta Bilbon bizi zara.

Gurasoak Donostiara lan bila joan ziren eta horregatik han jaio eta bizi nintzen, Alde Zaharrean. Aita kafetegi batean zerbitzari lanetan zenbait urtez aritu ondoren, Leitzara itzuli eta Basakabi hotela eta jatetxea zabaldu zuten. Gaur egun nire bi anaiek jarraitzen dute ostalaritza munduan. Asteburuak eta oporrak Basakabin ematen nituen, baina Donostian bizi nintzen izeba batekin. Batxilergoa amaitutakoan Ekonomikak ikastera joan nintzen Bilbora, Sarrikora. Egoera politikoa oso gogorra zen, dena puri-purian zegoen. Ekonomiaz gain beste gauza asko ikasi nuen unibertsitatean: oso jende konprometitua ezagutu nuen politikarekin, gai sozialekin... eta horrekin gelditu naiz. Koherentea izatea zer den ikasi nuen giro horretan.

Administrazioan urte luzetan aritu zara lanean, non zehazki?

Arabako Foru Aldundiko Ogasun sailan hasi nintzen. Gero, 95ean, kargu publikoa izan nintzen: Kultura zuzendaria. Lau urte oso interesgarri izan ziren. Bukatu nuenean Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen saileko departamentu bateko zuzendaria izan nintzen Diputazioan eta beste lau urte gehiago eman nituen Eusko Jaurlairtzan, Xabin Intxaurrearekin Ingurumen sailean. Politikan ere aritu nintzen EA alderdiarekin.

Zergatik utzi zenuen hori guztia Opusen lanean hasteko?

Iritsi zen momentu bat non aldaketa behar nuen. Urte asko neraman administrazioan lan egiten eta salto bat ematea egoki ikusten

nuen. Buruak beste zerbait eskatzen zidan. Denboralditxo batez kanpora ateratzeko gogoia ere banuen. Garai hartan, bi urte lehenago, proposatu zidaten Opuseko Euskal Herriko Komunikazio bulegoa martxan jartzeari. Aldatzeko gogoia neukanez eta gauza desberdina zenez, onartu egin nuen. Sekulako zortea izan nuen. Zortzi hilabete sabatiko hartu eta Ipar Amerikara joan nintzen. Sei hilabete izan nintzen Toronton eta beste bi Estatu Batuetan, Opusen hango bulegoetan nola lan egiten duten ikusten.

Lanbide honetan hasi zinenen politika aktiboa ere utzi zenuen. Zergatik?

Arabako EAKo exekutiban nengoen, baina lan berri honetan jende desberdinarekin ibili behar zen eta nire jarrera politikoa maila pribatuan gelditu behar zela pentsatu nuen. Hala ere, nire pentsamendu politikoak ez dira horregatik aldatu.

Segituko bazenu Bildukoa zinateke orain? Bitxia, ezta?

Rafa Larreinari gertatzen zaion bezala: bera ere Opuseko numerarioa da eta Amaierako diputatua Madrilgo Kongresuan. Nire kasua agian ikusgarriagoa litzateke.

NORTASUN AGIRIA

Juan Carlos Mujika. Guraso leitzarrak, baina bera Donostian sortua 1956ko abuztuaren 11n, San Tiburtzio egunean. Jose Javier Múgica ETAK hil zuen zinegotzi leitzarraren iloba eta Alex Múgica sukaldari ospetsuaren anaia. “Ni familiako zakur berdea naiz: ostalaritzan ari ez den bakarra eta gainera Opusekoa”. 2006an zabaldu zuen Opus Dei prelaturako Euskal Herriko Komunikazio bulegoa.



Seguru askotan egin dizkizuten galderak direla: Opusen zergatik, noiz eta nola sartu zinen?

Bai, askotan galdetzen didate, noski, baina normala da. Azken finean, Opusekin gertatzen da Elizaren barruan nahiko fenomeno berria dela eta morboa sortzen duela. Gaztetan ni oso mutil normala nintzen. Garai hartan gehienok bizi ginen gizarte giro kristauan. Bizitzan denok inoiz izan dugun krisialdi batean sartzen hasi nintzen ikasle garaian eta Opusen bitartez kristautasuna zer zen ulertu nuen. Kristau izateko era desberdin bat eza-gutu nuen han. 18 urterekin sartu nintzen behin-behinean eta bost urte geroago behin betiko, inkorporazioa normalean bost urtetan egiten baita. Numerarioa egin nintzen.

Zer da Opusekoa izatea?

Benetako kristautasuna zure bizitzan sartu eta bizi proiektu bihurtzea. Horrek argitasuna eman zidan nire bizitzaren zentzua ulertzeko. Lehengo egunean Pedro Almodovarri esaldi hau irakurri nion: "Idatzi eta filmak egiten ditut nire bizitzaren hutsunea betetzeko". Hutsune hori betetzea da bizitzan norberak duen erronka nagusia. Batzuk ez dira oso kontziente bizimolde azkarrean sartzen direlako, edo pentsatu nahi ez dutelako, baina gero bizitzak kolpeak ematen dizkizunean nolabaiteko euskarriak behar dituzu aurrera jarraitzeko.

Zuen webgunea irakurrita, zu ezagututa... ematen du GKE bati buruz edo Elizaren oinarriko mugimendu herritar bati buruz ari garela, baina bestaldetik Opusez dugun irudia askoz ere negatiboagoa da. Zer gertatzen da hor?

Hasi nintzenean pentsatu nuen komunikazio lan honi hasiera emateko lehenbiziko urratsa zela jakitea jendeak zer pentsatzen duen gutaz. Arlo ugariatako 500 pertsonarekin hitz egin nuen. Elkarrizketa horiek guztiak egin ondoren ikusi nuen errespetatu bai, baina ez gaituztela maite. Eta hori neurri handi batean gure errua izan da. Guri Eliza osoari gertatzen zaiona gertatzen zaigu, zaku berean gaude. Urte askotan egurra eman digute eta horren ondorioz ateratzeko beldur izan gara, baina garai horiek pasa dira eta orain jarrera jatorragoa erakutsi behar dugu, herrikoia. Zer egiten dugun erakutsi eta geure burua ezagutzera eman behar dugu.

Komunitate eraginkorra zarete Elizaren egituran? Eraginkorra? 4.500 apezpiku daude eta horietatik soilik 23 dira Opusekoak. %0,1 besterik ez. Vatikanon ari direnen artean ere %0,1 da Opusekoa. Egia da oso postu garrantzitsuetan kokatu izan direla, baina orain, adibidez, Federico Lombardi jesuita

Opus Deiko kideak

"Munduan 90.000 inguru dira, gehienak European. Ameriketara badira Mexikon, Perun, Argentinan, Txilen eta Kolonbian, nagusiki. AEBetan 3.000 izango dira eta Kanadan gehixeago. European oso banatuta daude. Azken urteotan Errusia, Eskandinavia edota Eslovenia aldera ari dira zabaltzen. Espainiako Estatuan 30.000 inguru daude. Euskal Herrian 4.500 gara. Asko, baina kontuan hartu behar dugu Nafarroako Unibertsitateak izan duen erakartze efektua".

da Vatikanoko bozeramailea, Opuseko Navarro Valls ordezkatzera etorri zena, eta inork ez du esaten "zer nolako boterea duten jesuitek!". Nik ez dut horrenbesteko pisurik ikusten.

Baina Opusi buruz hitz egitea erlijioz harago doazen kontu askotaz hitz egitea ere bada, ezta? Dirua, politika... Opus beti agertzen da diruarekin eta eskuinarekin harremanetan.

Hori egia izango balitz, hori ikusi izan banu, ni ez nintzateke Opusekoa izango. Gauzak ez dira zuriak edo beltzak. Opusek egin zuen bere lehen obra korporatiboa Bizkaian izan zen, 1951n: Gaztelueta ikastetxea. Gerra hasi aurretik Escrivá de Balaguer Madrilén zegoen eta han Opusek ikasleentzako erresidentzia bat zeukan. Hara ikastetxera joateko aukera dirudunek soilik zuten. Bilbotik joandako batzuk ziren gero hemengo kolegioa zabaltzen zutenak. Haien inguruko jendea, Negurikoak, joaten ziren hara eta horregatik gizartearen sektore eta giro horrekin lotua dago. Baina Bilbo edo Euskal Herria askoz ere handiagoa da eta guk eskaintzen dugun produktua jende guztientzako da, ez soilik haietaz, dirudunentzat. Zeretik hasiko bagina oso modu desberdinean egingo nuke: proiektu bat, balore batzuetan oinarritua, baina jende guztientzat. Baina ez gara hasiberriak eta hau dena aldatzeko sekulako lana egin behar da.

Etxean zakur berdea zarela diozu, baina Opusen barruan baita ere, ez?

[Irriz] Askotan esaten didate ni desberdina naizela. Denak gara desberdinak.

Nafarroan alfonbra gorria jarri zaio beti Opusi: lurzorua oparitan unibertsitatea eraikitzeke garaian, ondoren laguntzak, baimenak... Duela gutxi, Donapean ikerketa zentroa zabaltzeko erraztasunak emateko prest zen UPN.

Gauza bat esango dizut: Euskal Autonomia Erkidegora etorrita badakizu Gipuzkoak Nafarroak baino diru gehiago ematen diola Nafarroako Unibertsitateari? Eta ikastetxeekin, diru-laguntzekin, ez dago arazorik. Ematen du Nafarroan dena desberdina dela.

Eta ikasleen generoaren arabera segregazioa nola uler daiteke?

Ni ez naiz aditua. Orain batzuk hasi dira esaten Estatu Batuetako ikastetxe publikoetan ere hasi direla neskak eta mutilak bereizten emaitza hobeak lortzearen... Bigarren mailako eztabaidatzat hartzen dut. Gurasoak dira erabakitzeke askatasun osoa izan behar dutenak. Zergatik ez?



“Burbuila batean sartuta bizi izan gara. Gizarteratzeko ahaleginak egin behar ditugu. Hori da egiten dugun autokritika”.

Opuseko ikastetxeetan dauden guztiak ez dira Opusekoak?

Ezta gutxiago ere, ez familiak ez irakasleak ere. Nafarroan agian gehiago dira hor daudelako Unibertsitatea eta Klinika eta horien bidez Opuseko familia asko iritsi dira, baina Bilbon, adibidez, agian Opusekoak %5a besterik ez da izango. Hor jendea dago balio batzuk bilatzen dituelako, edo esatus sozial bat, agian.

Numerarioa zara. Zer esan nahi du horrek?

%80 supernumerarioak dira, familiak osatu ditzakete. Hori da estandarra. Eta gero gaude arraragoak garenok: numerarioak. Espiritu berean, baina disponibilitate osoa dugu lanetik kanpo formazioa emateko supernumerarioei, beste lurralde batzuetara joateko edo lan zehatzak egiteko. Beti ere modu boluntarioan, ez aginduta.

Eta gogorra da zelibatoari eustea?

Ni gaztetan, Basakabin nengoenean, lagunekin diskotekara joaten nintzen. Mutil normala. Badakit kanpotik ikusita zaila dela ulertzea, baina kristautasuna zure bizitzan sartu eta zure proiektu bihurtzen denean, horrek esan nahi du zure barne bizitza sustatu egiten duzula eta azkenean nolabaiteko harreman pertsonala ezartzen duzula Jaungoikoarekin. Harreman horretan ikusten duzu berak osorik berari eskainitako pertsonak behar dituela. Eta egoera honek askatasuna ematen dizu jende guztiarekin egoteko. Jokamolderik koherenteena iruditzen zait. Zelibato hitza niri ez zait batere gustatzen. Ematen du ez dakit non galdutako monasterioko zerbait izugarria. Dena den egoerak, pertsonak, harremanak... ez dira berdin ikusten 20 edo 50 urterekin.

Ez dago modan

“Kristautasunaren balioa da Jaungoikoa zurekin doala beti. Ez zaude inoiz bakarrik. Eta hori da sustatu behar duzuna eta bizitzaren beste ikuspuntu bat ematen dizuna. Gero gainera, beste bizitza dago, hil ondorengoa, zer pagotxa, e? Dena den, jakin badakit orain kristaua izatea edo zarela esatea ez dagoela modan”.

Zilizioak (sexu tentaldiei aurre egiteko gorputzean ezartzen den eta mina egiten duen tresna) eta halako zigorrak maiz erabiltzen dira?

Mortifikazioa deitzen zaio horri. Hala ere fundatzaileak dio benetako mortifikazioa eguneroko gauza txikitian dagoela. Adibidez, umore ona izatea lanetik etxera bueltan. “Mortifikaziorik onena batzuetan irribarre bat da”, esaten zuen. Borroka pertsonala da, nire izaera hobetzeko ahalegina, besteei bizitza errazagoa eta erosoagoa egiteko lehia. Hori da borrokarik zailena. Horrelako espiritua izateko gogor saiatu behar da eta izaeraren arabera borroka pertsonal hori modu batez edo bestez egingo duzu.

Zuk erabili duzu inoiz?

Bai, erabili dut. Eta normala da jendeak ez ulertzea.

Eta zer ikasi duzu?

Entrenamendu moduko bat da. Zeure buruari egiten diozun exijentzia bat. Zentzu horretan hartu behar da. Nik ez dakit horrek iraungo duen ala ez, baina garrantzitsua bestea da, hobetzeko egunero egiten den borroka pertsonala.

Aita Santuak orain berriki emakumeek Elizan duten paperaz hitz egin du. Bigarren mailako kideak dira?

Apaiz emakumerik ez dugu oraindik, baina gainerakoan maila berean daude. Garrantzitsua da emakumearen papera eta duintasuna bermatzea gizartean eta elizan. Emakumearen parte-hartzea kontu berri samarra da gizartearen hainbat alorretan eta Elizan gauzak beti askoz ere mantsoago mugitzen dira. Nik argi daukat emakumeak gizonok baino gehiago direla. Emakumeek badute frekuen-

Irudia

Ez du Opusekoa ematen: pertsona atsegina, irribarretsua, musikazalea, berriksua, mendizalea, euskalduna... baina bada, eta lan itzela du gizartean horren zabaldua dagoen Opusen irudi iluna argitzeko. Kanpora begira lan handia, baina etxe barruan ere egin beharrekoa ez dela makala aitortzen du Mujikak.

tzia banda bat askoz ere zabalagoa. Gizonok sinpleagoak izaten gara. Sentiberatasun handiagoak dira eta gauzak errazago harrapatzen dituzte. Emakumeek badakite edozein adineko pertsonak tratatzen eta edozein egoeratan, eta hori lan munduan nabari da. Proposamenak egiterakoan eta erabakiak hartzerakoan beste ikuspuntu globalagoa ekartzen dute. Nik hori askotan ikusi dut, horregatik erabakiak hartzen diren tokietan emakumeak egotea oso garrantzitsua da. Hori da nire pertzepzioa.

Hala ere Opuseko batzuek oraindik uste dute emakumeen zeregina ez dela ikastea eta lan egitea, baizik eta etxean gelditzea senarra eta haurrak zaintzen.

Nik ere hori entzun dut, baina kontatu didate aspaldiko kontu bezala.

Guri irakasle batek esan zigun ni Nafarroako Unibertsitatean ikasten ari nintzelarik, eta ez naiz horren zaharra...

Horregatik esaten dizut asko hobetu behar dugula.

Halakoetan ez dizu gogorik ematen Opuseko kide batzuei ahoa xaboez garbitzeko?

Hori erakunde guztietan gertatzen da. Komunikazio lana kanpora eta barrunera begira egin behar da. Kanporakoa askoz errazagoa da. Barrura begira gure hutsuneak non dituen

Emakumeak lan arloan

"Emakumeek badakite laneko aferak garrantzitsuak direla, baina lanetik kanpokoak ere bai, maila berean, eta hori oso garrantzitsua da".

gun ikusten ari gara eta Prelaturak hori onartu egin du jada.

Iruñerriko Antsoain herrian abortuak egiten dituen klinikaren parean protesta ekitaldiak egiten dira. Aurrekoan artzapezpikuak ere parte hartu zuen. Zer pentsatzen duzu horretaz?

Badira estiloak eta estiloak. Batzuek halako ekimenak ongi ikusten dituzte eta beste batzuek nahiago dugu beste bide batzuk jorratu. Orain berriki, adibidez, Maternity izeneko proiektua abian jarri duen pertsona ezagutu dut. Zailtasunak dituzten edo borxatuak izan diren emakume haurdunentzat haurra izan dezaten, eta baita ondoren ere, laguntza iraunkorra ematea da helburua. Hori bai iruditzen zaidala ekimen interesgarria. Ni ez nintzateke inoiz joango Antsoaingo klinika horretara protesta egitera, baina ezin diet besteei trabarik jarri. Egiten ahal dudana da hitz egin eta saiatu konbentzitzen gauzak modu positiboan egiteko, baina besterik ez. Bestalde prentsan aurkezten ari dira gaia "operación Opus" balitz bezala eta hori ere ez da. Esan dute Unibertsitateak kredituak ematen dizkiela bere ikasleei hara joateagatik. Hori tontakeria galanta da.

Aita Santu berria zer moduzkoa da?

Oso ona. Nik ikusi nuen bezain laster pentsatu nuen oso komunikatzaile ona dela. Bi hilabetetan buelta eman dio gauza askori. Benedictorekin pederastia, *vatileaks*, agiriaren lapurreta, mafiak... ageri ziren komunikabideetan bata bestearen jarraian. Honek buelta eman dio mezuaren ardatzari heldu diolako. Bere buruarekin oso zorrotza da eta oso koherentea. Ez du komunikazio aholkularirik, eta egia esan, inork aholkatu gabe oso ongi egiten ari da dena.

Opusentzat ona?

Oso ona. Primerakoa. ■



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Engainatu egin ninduten, eta familia osoa geratu gara langabezian

Claudia Gonzalez Rodriguez dut izena eta Kolonbian jaio nintzen, Bogotan, duela 47 urte. 2003an etorri nintzen Euskal Herrira. Geroztik, semea eta alabarekin bizi naiz Bilbon, alokairu sozialeko etxe batean. Hamar urteotan makina bat lanetan aritu naiz, iruzur baten ondorioz lanik gabe geratu naizen arte.



KOLONBIAN unibertsitate ikasketak egin nituen, eta arnasketa terapeuta naiz, jaioberrietan aditua. Etxea eta lana nituen han, baina Kolonbiako indarkeriatik ihesi eta bizi-maila hobearen bila etorri nintzen Euskal Herrira. Ezagun baten bitartez lortu nuen ume batzuk zaintzeko kontratua, eta horri esker, dokumentu guztiak behar bezala nituela etorri nintzen: lan eta bizileku baimenarekin. Bi urte geroago etorri ziren nire seme-alabak. Tamalez, nire unibertsitate titulua ez da baliogarria hemen, eta ezin izan dut ospitaletan lan egin. Hala ere, urte hauetan hainbat lanetan aritu naiz, adineko pertsonak zaintzen batez ere.

Duela urtebete inguru autonomo egin eta nire bizitza egonkortzeko aukera izan nuen. Hori zen, behintzat, uste nuena. Zaharren egoitza txiki baten jabeak negozioaren kudeaketa nire gain hartzea proposatu zidan. 2.000 euro ordainduko nizkion hilero, eta erabaki guztiak nire esku geratuko ziren. Nire semeak heziketa profesionaleko elektromekanika titulua du, baina une hartan langabezian zegoen, eta onartu egin nuen proposamena, hari lana emateko aukera izango nuela pentsatuta. Aukera paregabea zirudiena, ordea, biak langabezian utzi gaituen iruzurra izan da azkenean. Hasi eta gutxira, langileek salaketa jarri zidaten, zaharren egoitza nire aurretik kudeatu zuenak kontratatutakoek. Antza, 30.000 euro zor zizkien aurreko arduradunak. Egoitzaren jabea jakinaren gainean zegoen, noski, baina ez zidan ezer esan harekin tratua egin nuenean. Engainatu

egin ninduen. Pasa den azaroan izan zen ebazpena, eta epaileak arrazoia eman zien salaketa jarri zutenei. Zaharren egoitza kudeatzen jarraitu nahi banuen, ezagutu ere egiten ez ditudan langile horiei lana eman behar nien, eta 30.000 euro ordaindu. Horretarako dirurik ez nuela eta, utzi egin behar izan nuen.

Geroztik, semea eta biok langabezian gaude, prestaziorik jaso gabe. Zorionez, ia hamar urtez zain egon ostean, aurreko urtean alokairu sozialeko etxea egokitu zitzaigun. Horri esker badugu non bizi bederen. Nire alabaren gaitasun-urritasunagatik 357 euroko laguntza jasotzen dugu eta horrekin ordaintzen dugu alokairua, baina janaria eta gainontzeko oinarritzko gastuetarako, komeriak. Aurretik aurreztutako gutxiarekin ari gara moldatzen, baina lana aurkitu beharra dugu aurrera jarraitu ahal izateko. Injustizia handi batek eraman gaitu oraingo egoerara, eta hori mingarria da oso.

Ez dut Kolonbiara itzultzeko asmorik. Diru asko irabazita itzuli beharko nintzateke, negozio bat ireki ahal izateko. Irlandan eta Frantzian ditudan lagunek haiengana joateko gomendatu didate, baina hizkuntza dut oztupo. Gainera, oso gustura gaude Euskal Herrian. Duela urte batzuk curriculum bidali eta berehala deitzen zidaten. Orain ez da horren erraza lana aurkitzea. Haatik, ez naiz geldirik egoten, eta aurkituko dut zer bait berandu baino lehen. Hala espero dut behintzat. ■



SAGARDOTEGIAK

Trikuharri eta sarioiak ere Larre-Gain sagardotegiko menuan

Ingurunea bisitatuz sagardoaren kultura ezagutzea. Eskaintza hori zabaldu du iragan udazkenean Hernaniko Larre-Gain sagardotegiak, Gipuzkoako Parketxe Sarea (GPS) Fundazioarekin elkarlanean. Aiako Harriak parke naturalaren ateetan kokatzen da sagardotegia, eta inguruan daukan kultur paisaia aberatsa aprobetxatu dute.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

LARRE-GAINETIK BERTATIK HASITA, GPS Fundazioak pare bat orduko ibilaldi gidatua du prestatuta Aiako Harriak parke naturala ezagutzeko. Irundik Hernanirainoko zonaldea harrapatzen du parkeak, baina kasu honetan Urumea ibaiaren inguruak hartzen dira bisitarako eremu, natur balioez gain kultur paisaia aberatsa duelako. Parajeak erakutsi, Euskal Herriko animalia, landare eta zuhaiztiak ezagutu eta gizakiak urteetan zehar utzitako aztarnak ikusteko parada dauka bisitariak. Antolatzaileek diote, gainera, ez dela ibilaldi gogorra eta edonork egiteko moduan dagoela. Mendi buelta eginda, sagardoaren prozesua zein den, nolako tresneria erabiltzen duten, lehengo eta oraingo tolaeren ezberdintasunak, zer sagar-mota erabiltzen

dituzten eta abar erakusten dute Larre-Gainen bertan, eta sagardotegiko otorduarekin bukatzen dute bisita.

Inguru horietan gizakiak utzitako hainbat aztarna aurki ditzakegu: 5.000-6.000 urteko datazioa duten trikuharriak daude, eta Euskal Herrian soilik topatu diren Erdi Aroko sarioiak ere aurkitu dira, esaterako. GPS Fundazioak, Larre-Gainekin elkarlanean, herritarrei ingurunea ezagutaraztea du helburu, maitatu eta zaindu dezaten. Urumeako Zilegi Mendiak bezala ezagutzen dute batzuek lekua, lur komunala zena, garai batean herritarrek gestionatu eta antolatutako mendi-gunea. Antolaketa horren parte ziren aipatu sarioiak. Ganadua eta zelaien ustiaketa kontrolatzeko, zonaldean markatzen ziren eremu zirkularrak dira sarioiak, zenbaitek megalitismoarekin ere lotu dituenak. Hernanikoak, badirudi XI-XII. mendekoak direla. Biribila egiteko, lehenengo erdigunea markatu, bertan austerretza edo artamugarria izeneko harria jarri eta ondoren soka batekin-edo konpas moduko baten bidez egiten zuten zirkulua. Erdiguneko austerretza edo artamugarria bere lekuan da oraindik, ibilaldian ikusten denez. Gune zirkular markatu horiek ganadu talde bakoitzaren eremua definitzen zuten. Eguzkitik eguzkirako tartean zelaira atera zitezkeen, baina iluntzerako berriz itzuli beharra zeukaten sarioira. Horrela, zelaia-aren ustiaketa neurtzen zuten eta bertako ganadua soilik ibiltzen zen bertan. Gauean abereen bat bere lekutik kanpo harrapatuz gero, bahitu egiten zen.

Bisita gidatuak

Larre-Gainen (943 55 58 46) antzeko plana egiteko aukera ematen dute, besteak beste, honako sagardotegiek ere:

- Aburuza (Aduna) 943 69 24 52
- Zabala (Aduna) 943 69 07 74
- Iparragirre (Hernani) 943 55 03 28
- Ola (Irun) 943 62 31 30
- Satxota (Aia) 943 83 57 38
- Kalonge (Igeldo) 943 21 32 51
- Bereziartua (Astigarraga) 943 55 57 98
- Petritegi (Astigarraga) 943 45 71 88
- Oiharte (Zerain) 943 50 10 13
- Añota (Azpeitia) 943 81 20 92
- Uxarte (Amorebieta-Etxano) 946 30 88 15

Sagardotegia 1995etik jendearentzat zabalik

Larre-Gaineko familiak urteak daramatza sagardoa egiten. Publikoari zabaltzeko aukerari, baina, 1995ean heldu zioten eta orduz



Mendi buelta eginda (ezkerreko argazkian, saroiaren erdian egoten den austerretza edo artamugarria), sagardoaren prozesua zein den eta abar erakusten dute Larre-Gainen. Sagardotegiko otorduarekin bukatzen dute bisita.

geroztik ematen dituzte txotx garaian otorduak. 130 lagun inguruk bazkaltzeko moduko jangela daukate. Tolare zaharra lehengo lekuan mantentzen dute, erakusgarri, eraikinaren barruan, nahiz eta orain lanerako darabiltena beste bat den. Joxe Lasarte bertako sagardoaleak azpimarratu du, urte batzuetan falta izan zaien sagarra kanpotik ekarri dutela, baina gaur beren sagarrarekin nahikoa ez badute, inguruetatik ekartzen dutela, Euskal Herrikoa. Bertako sagarrarekin egindako zukuaz gozatzeko aukera dauka, beraz, Larre-Gaina gerturatzen denak.

Hernaniko sagardotegi gehientsuenak dauden Osinaga bailaratik kanpora geratzen da Larre-Gain, Ereñozu auzora bidean, Epele bailararen kaxkoan. Hala ere, txotx garaian ondo komunikatuta dago herriarekin, autobusa igotzen baita bertaraino asteburuetan. Lasartek dio, kanpotik gerturatzen den jendeak askotan beste zonaldea harrapatzen duen autobusa bakarrik ezagutzen duela, baina honek ere baduela bere zerbitzua. Aste barruan joateko asmotan dabilenari ere, aholkatzen dio autobusez joateko interesa duenak lasai esateko erreserba egiterakoan; bai baitakite jendeak errepideetako arriskuak saihestu nahi izaten dituela eta talde koxkor xamarra bada behintzat zerbait egin ahal izango litza-tekeela.

Sagardotegientzat, esparru gehienetan bezalaxe, garai hobeak izan direla diote. Bakoitza bere berezitasunarekin eta eskaini dezakeenarekin karta berriak jokatzen ari da, eta Larre-Gainek ingurua du abantaila. Lehen ere, nahiz eta eskaintza ireki baten parte ez izan, egin dituzte horrelako ibilalditxo eta

otorduak talde antolatuekin. Orain, baina, GPS Fundazioaren laguntzaz antolatutako plangintza berriarekin jauzia eman nahi izan dute. Txotx garaiak azken urteetan hartu duen indarra ez dute sagardora bakarrik mugatu nahi. Zonaldeak berak duen garrantzia ezagutarazi nahi diote jendeari, zer aberastasun daukagun ikusi eta baloratzeko. Sagardotegira otordua egitera bakarrik etorri beharrean, goiz edo arratsalde-pasa egiteko aukera eskaintzea dute helburu.

Kupelak txotx denboran soilik irekitzen badira ere, aukera berri honek urte osorako balio du. Eskolentzako bisita bereziak ere prestatzen dituzte. Kasu hauetan otordua kentzen dute eta ibilaldia eta sagardotegiaren bisita soilik egiten dituzte. Natura, historia eta kultura uztartzen dituen planak adin guztietarako balio du; eskolako irteeran, lagunartean edo familiar egiteko modukoa. ■



LARRE-GAIN

Tolare sagardotegia



Tel- 943 55 58 46 · 616 28 78 67


Ixabel Santa Kruz Zerain

Larre-Gain baserria · Ereñotzu · Hernani

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak





Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Urkullu, faborez, kasu egin Axularri!

GEROKO GERO leloan oinarritu da Barcina Euskalerria Irratiari eginiko lapurretaz galdetu zaionean. Nafarroako Gobernuak, “beti bezala”, Epaitegi Gorenaren erabakia beteko duela esan du. Momentuz, gaia zerbitzu juridikoen esku utzi omen du, haiei dagokielako hemendik aurrerako bidea argitzea.

Bulego batera sartzen ikusi dut presidentea. Abokatu-burua ordenagailuaren aitzinean idazten ari da, atzeko apalategian *Aranzadixen* bilduma osoa duela. Apaingarri hutsa, noski, legelari zaharrak ere Internetez maitemindu zirenetik ez baita liburukote horiei hautsa kentzen dionik.

Tira, kontua da presidentea ikustean legelari nagusiak idazteari utzi diola, diputazio-buruaren esanetara jartzeko. “Aztertu epaia eta egin edozer Euskalerria Irratiak lizentziarik gabe segi dezan”. Horixe izan da batere sorpresarik eragin ez dion agindua.

Irratien aferan, beraz, nafar agintariak denbora galitzen saiatuko dira, ataka horretatik “beti bezala” (alegia, txapuzaren bat eginez) nola atera asmatu arte. Ezagutzen ditugulako badakigu: epaileek beharturik ere, nekez hartuko dute euskarari arnasarik eman diezaioken erabakirik. Justiziaren epe onartezinak eta guztiok ordainduriko bitartekoak dituzte alde.

Barcinarekin zer eginik ez dagoenez, Urkullurengan jarriko dugu esperantza, noizbait urdazubiarren gomendioa kontuan hartuko duelakoan

Irudikatzen hasita, euskarazko komunikabideen istorioetan pixka bat atzera eginez, eguberri bezperetara joan naiz, Urkullu eta Barcinaren arteko solasaldiaren *lekuko* izateko. Eusko Jaurlaritzak jende askok espero zuen albistea iragarri berri du: bihertik, ETBren seinale digitala Nafarroa osoan hedatuko da. Behingoz, Parlamentuak berak aunitzetan eskaturikoa bete egingen da. Erabakia ezagututa, Barcina sutan jarri eta lehendakariari deitu dio, Jaurlaritzak atzera egin dezan. Urkulluk baiezkkoa eman dio. Orain, nonbait, bi gobernuek batzorde bat sortuko dute gaia aztertzeko. Geroko gero hemen ere, aspaldiko esaerak gogoratzen digunez: zerbait konpondu nahi ez baduzu, sortu batzorde bat.

Axularrek esana badakigu ez duela “deusek ere hainbat kalte egiten ari-mako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak”. Barcinarekin zer eginik ez dagoenez, Urkullurengan jarriko dugu esperantza, noizbait urdazubiarren gomendioa kontuan hartuko duelakoan. Izan ere, euskarazko komunikabideen egoera larriegia da Nafarroan luzamendutan segitzeko. Zirt edo zart egiteko garaia heldu da. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaia



IDAZLEA

Dena da botere kontua

NAHI GABE eman dio guardasolaren puntarekin buruan. Bi aldiz eskatu dio barkamen zintzoa, eta bietan erregu tonua nabari-nabaria izan da. Segundo bakan batzuk nahiko izan dira zauritua zaurtzaile bihurtzeko, zaurgarriki. Halako guardasol baten mila puntak marrakatu ko luketen aurpegia utzi izana leporatu dio, kolpetxoak oinaze fisikorik sortu ez badio ere. Botereak eman dio orduan ahotsa goratzeko ahala, bertzearen gainean ezartzeko eskubidea, publikoki oihukatzeak aukera: “Segi zure herrira, hemen mina baizik ez duzue egiten eta.

Baita guardasolarekin ere. Hau da hau!”.

Burumakur alendu da arabiar jatorriko emakumea. Ihesi, uxatua. “Dena da botere kontua” pentsatu duzu une horretan. Emakumea arabiarra ez balitz? Arabiarra emakumea ez balitz? Emakumea eta arabiarra izanik ere, gaztelaniaz solasean trebe moldatuko balitz? Erretorikoak dira arestiko galdera guztiok, jakina. Aski ongi ezagutzen dituzu haien erantzunak, bai eta horiek lotzen dituen hari petrala ere: dena da botere kontua mundu zibilizatuan. ■





Kimetz Arana Butroe

♦ ARGIAKO BLOGARIA

Euskalduna izatea

BERTSOLARI TXAPELKETA
NAGUSIKO bukaera agurra horrela amaitu zuen Ametsek: “Txapel hau eskaintzen diot amari, haurra nintzela euskara irakatsi zidanari”. Azken bitan BECen izan banaiz ere, oraingotan etxetik eta etxekoekin segitu nuen finaleko arratsaldea. Azken bertsoek, buruz burukoak, hitzen zentzu eta zirrarak, telebistan ikusiagatik ere, berehala barneratu ninduten finaleko bertso unibertsoan. Saioa amaitu eta berriz heldu nintzen unibertso-tik lurrera, kalera, auzo, lagun, herrikide artera. Herri bat eta bi mundu, zein hurbil eta zein urrun. Bertso aireak nire gogo eta ahoan, isiltasuna kaleko jendartean, Athletic tabernetako telebistan eta San Mames Barria lagunen buru begitan. BEC eta SMB, herri bat eta bi mundu, zein hurbil eta zein urrun.

Ez da inon erraza euskalduna izatea, gutxiago gure inguruan. Ametsek bezala gurasoei zor diet nik neurri handi batean euskara. Bere garaian euskaldundu ziren biak eta euskara izan da etxean anaia eta biok txikitatik ezagutu dugun hizkuntza. Etxean babes zena, kanpoan garraztasun izan da sarritan ordea. Txikitako zenbat begirada itzuli, institutuko zenbat itaun eta zenbat erantzun: “¿Pero por qué hablas en euskera?”. Lagun artean integratzeko zenbat oreka, nirea eman eta aldi berean geu garena ez ukatzeko oreka. Kolektiboa eta norbanakoa, norbanakoa eta kolektiboa.

Kolektibotasunean errotzeko, estatu kultura “ofizialek” uniformizazioa eta homogeneizazioa baliatu dituzte haien identitatea gorpuzteko. Boteretsuak etenga-

bean saiatu dira identitate artifizial zentrala eraikitzen estatuarekiko atxikimendua handitu eta herritar xumeak haien menpe izateko. Lotura sentimentala eraikitzeke funtzioa betetzen dute horrela kirol selekzioek, armadak edo jai egun nazionalak, nola Frantzian, hala Espainian.

Bazterreko komunitate kulturalak ordea geure identitate kolektiboa, beste oinarrietan eraikitzen dugu. Bertsoa bihurtu da gure identitatea kolektiboki bizitzeko bilgune. Txapelketa Nagusiak BECera begira jartzen gaitu lau urterik behin euskaldun gehienak, elkartu mugaldeko tantak eta urmaeleko uhinak,

*Etxean babes zena,
kanpoan
garraztasun izan da
sarritan. Txikitako
zenbat begirada
itzuli, institutuko
zenbat itaun eta
zenbat erantzun:
“¿Pero por qué
hablas en euskera?”*

iparraldekoak eta hegoaldekoak, bertsoen arteko isiltasun sepulkralean zein ondorengo txalo zaparrada beroan.

Horregatik merezi du euskaldun izateak; zailtasunen gainetik, eskaintzen diguten mundu uniformizatuan, geure harremanak eta sentimenak, balore eta erreferentziak beste era batez bizitzea ahalbidetzen digulako. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Joxepa eta
Roxaren
Bertso Egunekeo
kronika

**Eli Pagola Apezetxea
eta Maialen Akizu
Bidegain ♦**

Doinua: Juana Bixenta Olabe.

Utzi ditzagun tristurak urrun
zenbat jende zegon ikusi al dun?
Bertsoz, feminismoz hitz egiten
gaixoek direla uste ditene nobedadiak!

Betik egon gaitun argiak
emakume ta bertsolariak.

Eta ikusi al den Kursala
uste ninan dotoregoa zala.
Eta saioa ere nahiko larri
non zeren Txirrita ta Basarri?
Esaten ninan!
hobe genin prezio berdinan.
Kontxan paseoa ein bageninan.

Afari buelta patxadan lasai
baina modernoek hori ez ditene nahi.
Altxatzeko a ze biziya
hok non ditene edukaziya!
Alkohol usaian!
platera hozten utzirik mahian
Ez zitun bizi gerra garaian. ■

* Oharra: Bertso Egunean, afa-lostean kantatutako sorta. Hamar bertsoak ikusgai QRan.





**June
Fernández**

★
KAZETARIA

Abortua eta laikotasuna

MANAGUARA ETORRI NAIZ hilabete batzuk pasatzera. Nikaraguan, gobernu sandinistak (bai, 1980ko hamarkadan iraultza egindako sandinismoak) abortua guztiz legez kanpo utzi zuen 2007an. Urte horretara arte “abortu terapeutikoa” soilik onartzen zen. Nikaragua da nerabeen haurdunaldi gehien izaten duen Hego eta Erdialdeko Amerikako herrialdea. Hala ere, 12 urteko neskatxo bat bortxaketa baten ondorioz haurdun geratzen bada, eta bere kabuz abortatzen saiatu ondoren ospitalera badoa, medikuak poliziari deitzeko eskubidea dauka.

Hego eta Erdialdeko Amerikako gobernuak abortuaz daukaten jarrerari buruzko erreportaje bat argitaratu berri dut. Banekien Ekuadorreko Rafael Correak bortxaketa kasuetan abortua legeztatzeke saiakeraren kontra sutsuki egin zuela, baina harritu eta atsekabetu ninduen gehienek (Evo Morales, Cristina

daude. Venezuela, Bolivia edo Ekuador prozesu iraultzaile sendoetan murgilduta daudela diote agintariek, baina aldi berean sexu eta ugalketa eskubideen kontra egiten dute, oso erlijiosoa den iritzi publikoa pozteko eta agintariak eurek moral erlijiosoan oinarritutako heziketa jaso dutelako.

Gobernu espainiarrak posible zuen abortuaren kontra argudio ekonomikoen bitartez egitea, eskubide hau pribatizatzea, Gizarte Segurantzatik kanpo uztea, osasun esparruko beste murrizketa bat bezala aurkeztea. Alberto Gallardonek, ordea, gerra ideologikoa hasi du, lege proiektua *Kontzebituaren bizia eta haurdunaren eskubideak babesteko legea* izendatuz. Ministroarentzat *nascituruma* da (enbrioia, alegia) babestu beharreko subjektu juridikoa; emakumeak ez gara eskubide subjektuak, ama potentzialak (amatasuna dela emakumeak emakume egiten dituen esan zuen) eta abortuaren biktimak baizik. Estrategia horrek islatzen du Eliza Katolikoren eta fundamentalismo kontserbadorearen injerentzia areagotzen ari dela Espainian, legee, familiari, gorputzari, sexualitateari eta giza eskubideei dagozkien diskurtso politikoetan.

Plazandreak eta Bizkaiko Emakume Asanblada bezalako elkarte feministak aspaldi dabilta laikotasunaren defentsan lanean. Nikaraguan ere feminismoaren ardatz nagusietako bat da. Kontzeptuak ez ninduen orain arte asko erakartzen, baina orain ulertzen dut zein beharrezkoa den. Sexu eta ugalketa eskubideen urraketak, Elizaren pribilegio ekonomikoak, hezkuntzako LOMCE legearen kutsu kontserbadorea... Arazo horiek guztiak lotuta daude eta estatu akonfesional faltsu honen ondorio dira; beraz, laikotasuna izan daiteke gizarte mugimenduen arteko elkarlana sustatzeko borroka bateratua.

Abortuaren legearen kontrarreformaren aurka egiten dugun bitartean, Eusko Jaurlaritzari desobedientzia praktikatzea eskatzen diogun bitartean, uste dut komeni dela epe luzean laikotasunaren aldeko estrategia bateratua garatzea. ■



Kuba, Uruguai eta Mexiko Hirian (soilik hiriburuan) abortu libre onartzen bada lehenengo asteetan, abortuaren kontrako politikarien jarreraren iturria ez dela kulturala pentsa dezakegu, erlijioen pisuaren ondorioa baizik

Fernández, Hugo Chávez zena...) “ez jaioaren” eskubideen alde hitz egiten dutela ohartzeak. Alegia, hori da *Provida* izeneko mugimenduen pentsaeraren paradoxa: enbrioien bizitzaz arduratzen dela, aldi berean eta dagoeneko emakumeen duintasuna eta autonomia mesprezatzen dituztelarik.


Kuba, Uruguai eta Mexiko Hirian (soilik hiriburuan) abortu libre onartzen bada lehenengo asteetan, abortuaren kontrako politikarien jarreraren iturria ez dela kulturala pentsa dezakegu, erlijioen pisuaren ondorioa baizik. Laikotasuna bermatzen den heinean eta herritarren artean elizen eragina baxuagoa den heinean, emakumeen eskubideak bermatuagoak

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

«Nire barruko Nevadak du indar handiena liburu honetan»

Nobela berria argitaratu du Bernardo Atxagak. Nobela da, generoaren ezaugarri klasikoak apurturik ere. Hainbat osagaiz josia dator Nevadako egunak (Pamiela, 2013), eta izenburuak kronika hots egiten badu ere, gogoeta, oroitzapen, biografia, ipuin eta narrazio da liburua.

Osagai ezberdinak modu harrigarrian lotu ditu idazleak, erretorika utzi eta egia eta edertasuna beti helburu. Beste behin, ofizioa erakutsi digu egileak, gizakiaren barne munduari begira idazten jarririk.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Nevadan, Renon izan zinen familiarekin 2007-2008 ikasturtean William A. Douglass Visiting Scholar –ikertzaile edo aditu bisitaria–, programaren bitartez. Urtebeteko egonaldia zenuen eta, ageri denez, idazteko gogo zindoa zeneraman, ikusiko zenuena biltzeko intentzioa...

Adinarekin datorren zerbait duzu hori. Bistan da, esan beharrik ere ez dago, pertsona batek 60 urte bete eta gero, halako almazena dauka, hainbesteko bizi esperientzia... Gehiegi ere bai gure gorputzerako! Ospitalean esan zidatena dut gogoan: “40 urte irauteko gorputza heredatu dugu arbasoengandik. Gainerako guztia oparia da”. Hori esan zidatenean, pentsatu nuen adin hori gorputzerako ez ezik, agian, bururako ere gehiegi zela. Irudipena dut, 60 urteko pertsonaren zakuan eskua sartu eta zernahi aurki dezake-dala bertan, benetako bazar handi bat. Horri gehitu, beste alde batetik, bizi esperientzia ez ezik idazle esperientzia handia ere badudala... Bada, ore hori labean sartu eta ogia egin dut. Aspaldi-koa dut asmoa, eta pentsatzen dut poema liburua, edo lan poetikoa, egin behar dudala esperientzia hori jasotzeko. Bitartean, *Nevadako egunak* idatzi dut. *Post* bat da lan hau, 60 urte bete ondoren, nire lehen liburua. Beste batzuk ere etorriko dira, agian.

Bada bizi esperientzia, bada idazle esperientzia. Horrekin batera, bada oroitzapena, gogoeta, biografia, eta bada Nevada egin zenuen bizimoduaren kronika...

Aurreneko esperientzia, dena dela, *Obabakoak* idazteko garaian egin nuena da. Orduko

hartan, Villamedianara joan nintzen. Kolpetik, Gaztelako herrirka batera joan nintzen. Han sartu eta ez nintzen bederatzi hilabetea atera. Nevada ere bederatzi hilabetea egon nintzen! Oraintxe konturatu naiz!... Hori ere ikasi egiten da: etxeko ispilu domestikatuak atzean utzi eta, bat-batean, ispilu ezdomestikatuak dituzu aurrean; hau da, paisaia eta jende ezezaguna. Hasiera bat da berriro. Villamedianan egin nuen era honetako lehen-biziko esperientzia. Situazionismoaren teoria jarraituz egin nuen, anarkismo estetikoaren teoriak irakurri eta gero: “Jar ezazu zure burua zeurea ez den lekuan. Parisekoa zara? Ongi, baina ez zaitez abiatu egunero ibiltzen

duzun kale horretatik. Joan zaitez beste hartatik, eta kontatu zer ikusten duzun, zer inpresio hartzen duzun”. Kanpotik datorkizun inpresio berriak eragin izugarria du zure barruko paisaia horretan. Ping pong jokaldia da, nolabait esateko. Paisaiak itzuli egiten du pilota eta zuk pentsatu beharra daukazu.

Hor da idazlearen ofizioa, beraz. Paisaia berri horrek idazlearen baitan harrotu dituen hautsak behar bezala biltzea...

Soluzio literario errazena izango zen egunerokoa egitea, edo kronika, edo dietarioa. Baina hori, esate baterako, neure buruari galarazia diot: gorroto ditut dietarioak. Irakurle naizen aldetik, ez ditut batere maite, oro har. Frantzian, esate baterako, dietario asko egin dira. “Karnetak”, diote han. Irakurri nituen Albert Camusen karnetak. Ez dago

“Gure barruko mundu fantasmatorik gabe ez dago egia, ez edertasunik”



konparatzerik nobeletan ageri duen indarra-
rekin. Dietarioa egitea ukatu egin nion neure
buruari. Nire ahalegina izan da –eta aurkez-
penean ere esan nuen–, zerbait organikoa egi-
tea, eraikin bat jasotzea, piezarik pieza, eta
pieza horiek ez modu mekanikoan jartzea. Ez
nuen, besterik gabe, mosaiko bat egin nahi,
dena harremanez lotzea baizik. Horretaz ari
naiz “organikoa” esaten dudanean, hariz
betetako zerbait... Froga egin genezake.
Hartu liburuko testu bat, hartu beste bat, eta
ikusiko genuke azpian loturak daudela, dena
hariz beteta dagoela. Atera lurretik landare
bat eta zainez beteta dago, zain guztiak kora-
pilatuta. Horixe da organikoa, horixe da libu-
ru hau.

**Horri eman diozu garrantzia, Jose Franciscori
eta gisa bereko beste zenbait pertsonaiari,
esateko moduan...**

Dietarioak eta halakoak ez direlako, sekula,
esanahiaren gailurrean kokatzen. Ez dute,
behin ere, liburu batek esan lezakeen guztia
esaten. Forma mugatua da. Muga horiek ez
izateko, nobelaren formak hartu behar
nituen, pertsonaiek indarra hartu behar
zuten, ez zuten, bakarrik, kronikako pertso-
naia izan behar. Ondorioz, pertsonaia guztiek
halako *backyard* bat izan behar zuten, halako
atze bat, barru bat, fantasma batzuk. Eta gal-
dera da orduan, egiaren eta edertasunaren
aldetik begiratuta, zeinek du garrantzi han-

**“Euskal literaturak
luze gabe izango
duen arazoetako bat
distantziarena
izango da”**

diagoa, barruko mundu fantasmaticoak, ala
kanpoko munduak? Nire ustez, garbi dago,
gure barruko mundu fantasmaticorik gabe ez
dago egirik, ez edertasunik, maila handian
behintzat.

**Liburuko pertsonaietan, batzuek beste batzuek
baino indar handiagoa dute, jakina. Pertso-
nariak indartsuena, narratzailea bera, Joseba
Irazu, bere burua inoiz ez bezala azaldu duena:
hauskor, izuti, kezkatu...**

Hauskortasuna, ikara, larria... oso presente
daude beti gure bizitzetan. Beharbada ez dira
elkarrizketa batean agertu behar, baina horre-
tarako dago literatura, forma, egia batzuk
esateko modua delako. Oso gogoan hartu dut
hori, gure partikularitasunetik besteentzat ere
egia izango den horren bila ibiltzea. Erretori-
karen aurkako borroka etengabea da hori,
niretzat. Erretorika gure bizitzaren gainera
etortzen zaigu, saltsa balitz bezala botatzen
dute gure plater gainera... Erretorika oso
gaiztoa da, gezurra da, atzeratu eta okertu
egiten du auzia ulertzeko, hurbiltzeko,
momentua. Baditut adibide zorrotzak...

Esate baterako?

Errespetu guztiarekin esango dut. Ea ondo
esaten asmatzen duan. Bertsolari txapelke-
taren finala izan zen aurrekoan, eta segitu
nuen. Talentu handiko jendea dabil hor,
dohain izugarria duena hitzekin, baina zalan-

tzak ditut kontzeptuaz. Irabazle izango zenari halako gaia jarri ziotenean —aita atentatuan hila zuen umearena, edo—, eta horri buruz bat-batean kantatu zue-
nean, haren erantzunak kon-
tzeptuan arazo izugarria zegoe-
la erakutsi zuen. Agian, zegoen
tokian, hamahiru mila lagun
haien aurrean, eta, normalean,
ideologia jakin bateko pertso-
nen aurrean ari zelako kantatu
zuen kantatu zuen moduan,
baina, nik, erretorika guztietatik
kanpo, esan behar dut berak
esan zuena ez zela kontzeptual-
ki onargarria, ezin zela unibert-
sala izan, ezin zela eternala
izan. Esperientziak dio min
hori, aita hil dioten ume horren
mina, ez dela gainditzen. Hor ez
dago hitzik. Hamahiru mila
lagunen aurrean ezin da esan,
beharbada, baina liburu batean
esan egin behar da. Nik uste dut
Ametz Arzallusek ere liburu bat
idazten baldin badu beste era
batera planteatu beharko duela
auzia. Errespetu guztiarekin ari
naiz.

Nevadako egunak liburuan, izen-
deitura benetakoak dituzte per-
tsonaietako batzuek. Monique
Laxalt, eman dezagun. Beste
batzuek, aldiz, ez. Bob Earle, adi-
bidez, William A. Douglassetik
asko duen karakterrak. Zergatik
ezberdintasun hori?

Oso galdera ona.

Bat bada ere.

Oso galdera ona. Zergatik
batzuek dute benetako izena, eta
beste batzuek ez? Pertsonaia
batzuek eta besteek, oso pisu
ezberdina daukate liburuan. Pisu
gutxiena dutenek, alegia, kroni-
karen parte direnek —Gabriel
Urza Laxalt, kasurako... itzulpenean ezabatu
egingo dudak pieza, bide batez esanda—, bene-
tako izen-deiturak dituzte. Pertsonaia horiek
kronika egiteko baliagarri zaizkit, paisaiaz hitz
egiteko, Laxaltarrez hitz egiteko, Barack Oba-
maz, hartzez eta gainerakoez. Kronikaren
barruan, haien hitzak idatzi ditut, bestelako
ahaleginik gabe, hau da, ez naiz horien mundu
fantasmatikoan sartzen... Bob Earleren kasua
bestelakoa da. Izugarrizko pisua du nobelan,
ezin da Bill Douglass izan, izen eta deituraz.



Egia da Bill Douglass dagoela,
nolabait, pertsonaia horren
atzean, baina, dago, fisiologia
irakasle hura [Joseph Bell,
Conan Doyleren Medikuntza
irakaslea] Sherlock Holmesen
atzean zegoen moduan. Pertso-
naia batek garrantzia izango
badu, ikusten denarekin eta ikus-
ten ez denarekin jokatu behar du
idazleak. Barruko munduarekin,
kanpokoarekin baino gehiago.
Nik ezingo nuke, beraz, Bill
Douglass nobelaren pertsonaia
egin, ez baitut horrenbeste eza-
gutzen. Oro har, ez dugu eza-
gutzen aldamenean dugun pertso-
naren barru mundua. Inorena.
Hori da beste egia bat 60 urtere-
kin ikasten dena: kontzientzia-
ren fenomeno ultrasekretua da.
Inork ezin du asmatu ondoan
daukanaren kontzientziaren
bideak zein diren. Infinituak
dira. Nik galaxia baten irudiare-
kin konparatzen dut kontzien-
tzia, hainbeste masa eta isto-
rio... Eta nik nola ezin dudak
sakonerarik eman horri, eta,
aldiz, nola sakonera behar duen,
fikziora jo behar dut, eta fikzio-
an, nire ustetan, kronikan baino
egia gehiago azaltzen da, behar
duen sakonerarekin... Eta,
horretarak gero, beste galdera
bat: zeinek du karga handiagoa,
Bob Earlek, edo Jose Francis-
cok? Bob Earlek edo Adria-
nek?... Nik uste Adrianek eta
Jose Frantziskok askoz ere karga
gehiago dutela, askoz ere barru-
koagoak direla pertsonaia
horiek... Galdera ona da zurea,
ze nik ere pentsatu behar izan
dut. Kronikaren lerroan dauden
pertsonaiak, beren izenekin.
Nobelaren lerrokoak —Dennis,
Bob Earle, ni neroni...—, beste
era batera.

**Irakurketa bera egingo dute Nevada ibili
denak eta lur hartan batere ibili gabeakoak?**

Ondo dago galdera hau ere. Oro har hitz
egingo dut. Euskal literaturak luze gabe izan-
go duen arazoetako bat —profeta moduan
esango dut—, distantziarena izango da. Alegia,
zein pozgarria zen guretzat, unibertsitate
garaian, Li Po poeta txinatarraren poemak
irakurtzea. Edo Dostoevsky, kolegio garaian
irakurri nuena. Atsegin handia zen haiek ira-



kurtzea. Urruntasunean, distantzian, poetika bat zegoen, eta dago. Euskaraz idatzitako literaturari zama izango zaio distantzia eza. Osagai poetiko bat galduko du. “Ez dago jeniorik gela-morroiarentzat”, dio esaerak. Bada, era berean, “ez dago poesiarik amurriarrentzat Amurrioko idazlearengan”. Esango didate baietz, baina nik esaten dut ezetz. Alde horretatik, liburu hau Nevadan egon ez direnek irakurtzen dutenean, zabaltasun gehiago izango dute. Hobeto irakurriko dutela esango nuke. Han egon denak beti izango du galdera edo kezka: “Halako etxea, hura izango da. Halako pertsonaia, beste hura”. Nevadako elementuei dagokienez horrela ibiliko da.

Nire uste hutsa ote da AEBetan eginak dituzula lanik ederrenetakoak? Harako *Groenlandia*-

“Nire lanean inspiratzaileagoa zait Amerika, Europa baino”.

ko lezioa, Zazpi etxe Frantzian –partez, bederen, Amerikan idatzia–, honako Nevadako egunak...

Kar, kar, kar... Amerika, niretzat, oso-oso inspiratzailea da. Berriro martxan jartzen du nire burua, eta halako energia bat ere ematen dit, gaztetzeko moduko bat. Uste dut AEBetara joaten naizenean elektrizitate kolpe tiki bat izaten dudala. Burua lanean hasten zait eta, esan ohi den moduan, helburuak egia eta edertasuna baldin badira, Amerikak, eta AEBek batez ere, lagundu egiten didate. Hori ez zait gertatzen Frantzian, adibidez, nahiz eta *Nevadako egunak* honetan ere badagoen Frantzian kokatutako pasarte bat. Bide batez esanda, esperientzia izugarria izan dut Frantzian, aspaldi ez dela. Perigorden izan naiz, eta izan naiz presondegi batean, sexu gaizkileak zeuden. Hitzaldia



egin dut han. Esperientzia handia izan da... Baina Frantzia ez dut sentitzen AEBetan sentitzen dudak elektrizitate kolpe hori. Inspiratzaileagoa zait Amerika, Europa baino, esate baterako.

Asun Garikano zure emaztearen ondoan ikusi zintugun *Far Westeko Euskal Herria* liburuaren amaierakoan. Boisetik Renora zentoztela, geldialdia egin zenuten Jordan Valleyen. Hantxe, zuen zain, ongi-etorria eginez, hainbat euskal amerikar, adin handikoak bat baino gehiago. Blogean ere eman zenuen haietako batzuen berri... Uste nuen euskal amerikarrek presentzia handiagoa izango zutela *Nevadako egunak* honetan...

Agian, banatu egin dugu lana etxean. Asun Garikanok zure euskal amerikarrak hartu zituen idazteko gai... Inork ezingo digu esan, behintzat, alferrak garenik. Han egon ginenetik hirugarren liburua dugu *Nevadako egunak* [gogoan har Asun Garikanoren *Far Westeko Euskal Herria* eta *Kaliforniakoak*]. Gure kasuan, berak hartu du euskal amerikarrez hitz egiteko ardura. Nire kezkak, berriz, nahiz eta oso momentu onak izan ziren hangoak, beste batzuk ziren. Hala ere, nik uste hari horretatik ere tiratuko dudala, Jordan Valleyen eta Arocken, Eiguren Ranchen ikusi genuen eszena batetik, hain zuzen. Ume koxkor bat, zaldi bat hezten, John Wayneren filmetakoa ematen zuen, baina, aldi berean, euskalduna zen. Eszena polita. Dena dela, oraingo liburuan, barruko Nevada zen gaia, nahiz eta kanpoko Nevada ere agertzen den, zalantzarik gabe. Hala ere, barruko Nevadak du indar handiena hemen, nire barruko Nevadak.

Hogei bat urteko gaztea *Euskal literatura 72n* zure lehen lana argitaratu zenuenean. *Ziutaez* kaleratu zenuen 1976an, *Etiopia* bi urte geroago, aurrezki kuxako lana utzi eta idazle izango zinela erabakia hartua. Idazle zaitugu,

Gurasoen heriotzak

Parisen bizi naiz poema liburuan, gurasoen aipu egiten du Koldo Izagirrek poema eder banatan.

Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* honetan ere guztiz presente dira gurasoen azken egunak. "Kostatu zaigu, baina, inondik ere, gai gara gai horri heltzeko; horrela esaterik baldin badago, behintzat. Gurasoak, eta haien heriotza. Gaia ez da erraza, eta adierazten zaila. Gai handi horrekin, zazpi eta erdiko jokoan bezala da. Arriskua hor da, karta gehiegi jarri, gutxiegi... Mutil gazte bat ezagutzen dut oso liburu ederra idatzi duena horretaz. Marcos Giralt Torrent da [Tiempo de vida, bere aita Juan Giralt margolariaren heriotza kontatzen du]. Nik, aitaren eta amaren heriotzak kontatzen ditut. Formalki oso pozik geratu naiz bi testuekin ere. Uste dut horrela idatzi nahi nuela, horrela idatzi behar nuela, eta hor utzi dut gurasoen erretratu".

baduzu obra, baita hainbat hizkuntzatara itzulia ere. Galdera: noizko izango dugu instituzio bat, lobby bat, zure alde lanean, Nobel saria helburu?


Ez. Ez da behin ere gertatuko. Hemen ere, jo dezagun lerro zuzena bi punturen artean. Hinki-hankarik gabe diot: ez dut inolako usterik horri buruz. Ez da behin ere gertatuko. Alde batera, seinale ona iruditzen zait. Esan nahi du –nahiz eta hainbeste denbora eraman idazten eta publikoki hitz egiten, plaza honetan lanean–, lortu dudala independentzia bat –zuek hor eta ni hemen– eta beraz ez daukadala lobbyrik, aldekorik ez behintzat! Kar, kar... Egunen batean beste memoria batzuk idazten baldin baditut –kronikarekin zer ikusi handiagoa duen testua, alegia–, azalduko dut kontu honi buruzko egia txikiren bat. Baten bat harrituko da.

1999an, galegoz idazten duten idazleen elkar-teak Xose Luis Mendez Ferrinen izena eman zuen, Suediako Akademiaren eskariz, Galiziako literaturaren hautagai Nobel sarirako. Zu zeu ere hautagai izan zintezkeela esan nahi dut, Euskal Herriko erakundeak –paraofizialki bada ere–, horretan saiatuz gero...

Aspaldi konturatu nintzen elkarte bultzatzaile horien lanaz. Octavio Paz idazkaria ezagutu nuen, zehazki. Hark kontatu zidan Octavio Paz Nobel saria zenbat lan eta gestioaren ondorio izan zen. Hari entzun nizkionak entzun ondoren, guztiz harritu nintzen. Uste nuen askoz ere gauza garbiagoa izaten zela, idazleak saria jasotzen zuela, hala zegokiola. Gero, idazle holandarrek ezagutu nituen, Harry Mulisch, besteak beste, eta ikusi nuen Holandan eta Belgikan ere bazela talde bat –paraofiziala, zuk erabili duzun hitza erabiliz–, bertako idazleak Nobel sarirako bultzatzeko lanean ari zena. Europako saria izan zenean [Europako Literatura Saria 1990, Bernardo Atxaga finalista] konturatu nintzen portugaldarrek talde bat zutela han, lekuri leku zebile-na, beren idazleak bultzatzen, eta nire aukerak eta beste batzuenak zapuzten.

Zuk ez zenuen era horretako talderik, ez duzu inoiz izan...

Uste dut ez naizela hain harroa. Halakorik eskatzeko ere, alegia. Neurotikoezia naiz, harroa izateko. Ez dut behin ere termino horietan pentsatzen, sariak eta beste, edo, bakarrik, umetzen naizenean, oso aldi bakanetan. Gainera, badakit non bizi naizen, eta zein popularra naizen hemengo giro batzuetan. Kar kar... Baina, aldi berean, esan beharra daukat, orain, amurraina joan eta gero, dena pasatuta dagoela... Bada, barkatu harrokeria, baina beti harritu nau hainbeste



denbora hor egon eta gero, Euskal Herriari dohainik hainbeste publizitate egin eta gero, zein erantzun zipotza jaso dudan erakundeen aldetik hutsaren hurrengo kontuetan ere. Publizitatea, diot, Basque writer naizelako ni beti. Oraintxe, Australian; duela urtebete, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, *Seven houses in France* liburuarekin, 30 iruzkin inguru izan baititu liburuak herrialde horietan.

Erantzun zipotza erakundeen aldetik...

Tramite batzuk xamurtzea beharrezko izan zaidanean, kasu. Esate baterako, gure familia Atlantara, Emory Unibertsitatara joateko unean –Euskal Kulturaz ikasturte bat ematera, hain zuzen!–, bada... Jose Elorrietari esker joan ginen hara, ELA sindikatuko “par-taide” bezala, esango nuke. Elorrietak berak pentsatu zuen ona zela Euskal Herriaz Emoryn hitz egitea, eta pertsonalki arduratu zen gutaz. Beti eskertuko diogu. Baina, bestela, bere babesik gabe, ezin izango ginen Atlantara joan, orduko Jaurlearitzakoek ez zigutelako paper ziztrin bat egin izan nahi, eta hura gabe familiak sakabanatzea beste aukerarik ez zuelako. Eta Renora joan ginenean –joan behar zuen pertsona larri gaixotu zelako eta azken momentuan gu aurkitu gintuztelako, hau ere esan beharra dago–, Asun Garikanok, gero han *Far Westeko Euskal Herria* idatziko zuenak, bere lantokia galdu behar izan zuen. Etorritakoan deialdi batera berriro

“Koadernoia poemaz betea daukat, baina oraindik ez dut aurkitu haiek denak bateratzeko momentua”.

aurkeztu behar izan zuen bere burua lantokira itzuli ahal izateko... Eta eskerrak deialdi bat tokatu zen eta proba gainditu zuen! Stanforden, berriz, erotzeko moduko lana egin behar izan nuen tipulak erosteko ere justu iristen zen soldata baten truk... Beraz, lekutan Nobelak eta Nobelondoak! Ez dakit dakizun, baina ondo dator hizpidera. Datorren maiatzean “Idazle galego unibertsala” izendatuko naute. Zerrendan dira Juan Gelman eta beste hainbat [Mahmud Darwich, Elena Poniatowska, Antonio Gamoneda, Jose Luis Sampedro...]. Agian, galegoek bultzatuko dute nire hautagaitza Nobel sarietan, Mendez Ferrinenarekin batera! ■






1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



Helduen Literatura

Egia esan
Peru Magdalena
Elkar, 2003

Abentura literarioa

EGIA ESAN, ez dakit nola definitu Peru Magdalena-
ren azken lana: kontakizun luzea, nobela, nobela bat
idazteari buruzko abentura, abentura bati buruzko
nobela. Nolanahi ere, liburuak berak definizio
moduko bat ematen digu -tura atzizkiaren erator-
pen bi baliatuz. Bizitzan fisikoki emandako bilaketa:
abentura. Eta bizitza orrirra iraultzen duena: literatu-
ra (236. orr.).

Egia esan, halaxe izena baitu liburuak, modu
arrunt batean abiatzen da. Arri eta Kleo hizketan ari
direla, jakingo dugu gauzak ezkutatzen dizkiola
Arrik Mariari. Arri bizitza maitatu eta disfrutatzea-
ren aldeko pertsonaia da. Alegia, “ulertezina irudi-
tzen zitzaion, ulertezina baino gehiago onartezina,
bizitza bakar batekin konformatzea” (13. orr.). Filo-
sofia horren jabe, “gauzak ez dira sekula dirudite-
nak”, “bizi itzazu hainbat bizitza bizitza bakarrean”
eta horrelako esalditan sinisten zuen Kimuren aitag,
behin Mongoliara alde egin zuenak eta inoiz itzuli
ez zenak. Baina, egia esan, nor zen Arri?

Artista, abeslari, poeta, Eusko Jaurlaritzako par-
taide, eta abar. Orotariko bertsioak existitzen dira
Arriren inguruan. Horrexegatik, egia bilatzearen
ideiak itsututa, Kimuk, bere aitag behin egindako
bidaia berregingo du: “Baina bidaia bat ezin da
berregin. Bidaia bat egiteak bidea egitea esan gura

du” (145. orr.). Honela agertuko zaigu Kimu, libu-
ruaren hirugarren zatian, bere abenturaren kontari
eta, konturatu gabe ere, literaturaren egile. Emeki-
emeki, egiaren bilaketa zena interpretazio pertso-
nala bilakatzen da, kimu horretatik adar berria jaio-
tzen hasiz. Kimuk ulertuko du azkenik bere
izenaren esanahia.

Zenbait momentutan istorioa luzeegia suertatu
zait, baita aspergarria zenbait kasutan ere. Aita/semi
arteko konfliktoaz gainera, bidai iniziati-
koaren ideiek ez dirudite originalegiak. Aita ezagutu
zutenen mikroistorio eta testigantza txertatuek
erritmoa astuntzen dutela iruditzen zait, nahiz eta
ulertzen dudana liburuari abiatu duen konfliktoari
forma ematearren baliatu behar izan direla.

Zer da liburuari eustek lagundu nautena? Zer
da harengan sinisterra bultzatu nautena? Burutazio-
rako eskaintzen duen aukera. Alegia, istorioaren
hari narratiboa gaunditzen duten esaldi, komenta-
rio edota erreferentzia literarioetan topatu dut nire
-tura atzizki propioa. Eta hori da literaturaz espero
izaten dudana; fikzioaren bitartez
errealitatea ezagutzen sakondu ahal
izatea. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozkak emateko epea ireki da Urtarrilak 27 - Otsailak 16

Bozkatzeko bi modu:

- Webgunearen bidez erregistratuta
- Norberaren twitter kontutik

Bozkatu gehien
atsegin duzun bloga

Antolatzailea



www.blogetan.com

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekia | ARGIA kolaboratzeko aukera

Laguntzailea



napoka iria arnasten ikasteko berriz



Arnasten ikasteko berriz
Napoka Iria

Bonberenea Ekintzak, 2013

Barne bidaia hunkigarri bat

MIREN NARBAIZAK ETA ANDER MUJIKAK berriz ere arnasten ikasi dute. Birikak aire garbiz bete dituzte beren bigarren lan luzearen bidez, modu natural batean, harrokeriarik edo gehiegizko handinahirik gabe. Aurreko arropak kendu dituzte, biluztu egin dira, eta berriz ere jantzi dira.

Arnasten ikasteko berriz diskoa 2013. urtearen amaieran kaleratu zuten, aurreko lan luzea (*Lebertarazki edifizioak*) Bergarako Zabalotegi aretoan jendaurrean grabatu zutenetik ia hiru urte pasatu direnean. Bi diskoak Napoka Iriarenak dira erabat, Napoka Iriaren doinua bietan argi eta garbi antzematen baita: Mirenen ahots ederra eta bere kantatzeko nahiz gitarra akustikoa jotzeko modua, eta Anderren gitarra elektrikoa, bere pedalak eta gainerako tresnak erabiltzeko modu berezi eta pertsonala.

Dena den, disko batetik bestera hainbat aldaketa sumatzen ahal dira. Alde batetik, ahotsaren melodiak aurreko diskoan baino interbalo txikiagotan entzuten dira; bestetik, lehen kantuetako puntu jakin batzuetara biltzen zen tentsioa sakabanatuagoa dago; moldaketak oro har atmosferikoagoak dira, eta une iradokitzaileak, eta baita misteriotsuak ere, transmititzen dituzte.

Azken batean, lehen baino gehiago adierazten dute gutxiagorekin, eta diskoko azkenareko piezaren izenburuak dioen bezala, erantziz jantzi dira. Giro intimoa, hunkigarria da nagusi Arnasten ikasteko berriz diskoan. Melodia ederrak entzun daitezke, xehetasunez eta ñabardurez ederki jantziak, soberan egon daitezkeen batere apaingarririk gabe.

Diskoa leun hasten da, *Etxeorratz* ("Behetik ikusten zaitugunok etengabe hondoratzen gara zure oinetan") eta *Ibiltzeko gertu* ("Kemenez bete nituen arimaren ubeldurak, ahanzturan galdutako gorputz gogoaren deiak") kantuen bidez. *Izotzetan erre* hirugarren kantuan ("Beldurrez izotzetan daukazu beratzen bihotza min hartzeko beldurrez ibiltzen baitzara") gitarra elektrikoa atzamarkada batek sosegua apur bat puskatzen du, eta hortik aurrera beste hainbat sentipen eta sentsazio transmititzen hasiko zaizkigu kantuak, beste zenbait ñabarduraren eta ukituren bidez.

Nik ere kantuko ("Urrutitik begiratzeko beharrak zabaldu dizkit begiak, nigana biltzeko beharraz berreskuratu bizi nahia") giro bereziak harrapatu egin gaitu, eta *Disonantziak* kantuko ("Koloreztatuko nuke nik nahi ditudan margoez behin gau batez amestutakoa") bateriaren erritmoak eta amaierako gitarra elektrikoa marrazkiek beste norabait eramaten gaituzte.

Kontra kantuan ("Ez zaitzala ez, izuak kontrola, amarru hontatik aterako zara") gitarra elektrikoa eta ahotsa indartu egiten dira eta ozenago entzuten dira, eta *Erantziz jantzi* kantuan ("Badakit, harremanen laberintoan galduta gabiltz, erabakiz, zeinengana hurbildu edo urruti ibili") elkarrizketa bat antzeman dugu, zarata nahiz hotsen eta arpegio akustikoa artean, eta Mirenen ahotsak etsipen edo ernegazio puntu bat adierazten du.

Azkenik, *Distantziatik kantuak* ("Baso bihotzean ortozik nabil, errakastoetan oin biak bustirik, ugetuta azala arnastu ezinik urruntzera noa... has nadin hutsetik") diskoari amaiera bikaina ematen dio, tronpetaren eta harmoniumaren soinuaz baliatuta.

Grabazioa, ekoizpena, aurkezpena eta diseinu lanak ganoraz eginak daude, ederki. Diskoa erraz entzuten da, berehala, ordu erdi pasatxo besterik ez baitu irauten. Mirenek gitarra akustikoa jo eta kantatzeaz gain, argazkiak egin ditu; eta Anderrek gitarra elektrikoa, lap steel-a, fagota jo ditu, eta koroak egiteaz gainera, diseinu lanez ere arduratu da. Diskoan parte hartu duten gainerakoak hauek dira: Felix Buff (perkusioa), Iban Urizar (tronpeta eta harmoniuma), Ibai Gogortza (gitarra, kontrabaxua eta ekoizpena), Iñigo Irazoki (grabazioa eta nahasketak), Jonan Ordorika (masterizazioa) eta Josu Torrealday (argazkiak).

Mirenek eta Anderrek duela zortzi urte sortu zuten Napoka Iria. Tarte horretan bizi izandako esperientzien eta gertaeren ispilua da lan berria. Bihotza ukitu digun barne bidaia bat osatu dute. Kantu bakoitzak eremu, edo hobe esanda, giro batera eramaten gaitu, eta gogoetan hasi gara, oroitzen, edo besterik gabe, sentitzen. ■

Joxi Ubeda



LOTARAKO JANTZIA ----- MODUZ	ATLETISMO-KO HAGA ----- ATZIZKI FEMENINOA	FERIA, AZOKA	 DANI BLANCO	ILOBA (BIZKAIAN) ----- HELBURUA, XEDEA	PERTSONAIA-REN ABIZENA ----- MALDAZ ESTALI	BIZKAIKO UDALERRIA ----- LURRAREN JAKINTZA
UGAZABA, NAGUSI ----- JADANIK				ZAINZA, LAGUNTZA ----- ERRUSIAKO ENPERADORE		
	ADIA, AUHENA ----- ITOLARRI	KONTSONAN TE ERREPI-KATUTA ----- GAUZA EZ		ELEMENTU KIMKOA ----- UGAZTUN ADARDUNA		
PERTSONAIA-REN IZENA ----- PUSKA					DAMU, GARBAI ----- SEILU	
		LEINU, KASTA ----- AITZA, LORIA	ERIE TXE ----- NAFARROA-KO HERRIA			ZAKUR ----- DEUSEZ
GIPUZKOAKO MENDIA, AMEZKETAN	BEHAR DEN BEZALA ----- AGIAN, AKASO			GUZTI ----- ZORRIK GABE, KITATURIK		MODUAK
AZPI, BEHE ----- MUSKULU		OZENTA-SUNEZ ----- ARDI HITZ-ELKARKETAN	LANTEGI ----- KANPO, LANDA		EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA ----- JUNTAGAILUA	
						ROENTGEN ----- EGIPTOKO JAINKOA
KAUSAZ ----- BELARRON-DOKO, ZAPLASTEKO				PERTSO-NAIAREN JAIOTERRIA ----- KILOA		
					BARAZKI MOTA (PLURALEAN)	



	P	X					L	R	B		
G	I	S	A	Z		J	O	M	U	G	A
J	A	B	E				B	A	B	E	S
J	A	A	I		R	T	A	L	I	O	A
M	I	L	A		R	S	D	O	L	O	
Z	A	T	I		A	R	R	A	Z	A	O
		O	N	G	I	E	R	I	T	E	G
Z	A	B	A	L	E	G	I		G	U	Z
P	E		O	Z	E	N	K	I		E	A
G	I	H	A	R	I	A	L	L	E	R	A
Z	A	R	T	A	T	E	K	O		A	Z
	K	A	R	T	A	T	E	K	O		A

Tabernaren epelean hilero puntuka

KABIGORRI

HILABETEKO lehen ostegunean, hitzordua du Bidasoaldeko bertsozaleak: lagun giroan, eserita nahiz zutik, barraren aldamenen edo mahaian jesarrita, ordu eta erdi inguruko saioaz goza dezake Kabigorri tabernan (Irungo Mosku auzoan). Barreak, txaloak, garagar-do tragoak eta doinu arin nahiz sakonak nagusi dira hilero, taberna eta aldi berean ateneoa den gunean. Azpiegitura egokia du Kabigorri, jarduera anitz antolatzena ohituta baitago, eta horregatik jo zuten horra Irunabar bertso elkarteak kideek; horregatik, eta kalea, taberna, bazkal-afalostea, delako bertsoen toki naturala, euren aburuz. Afariaren truke abesten dute bertsolariek. Helburua, plaza handietan aritzen ez den jendeari aukera ematea. Eta bide batez, Irunen euskarari tokia egitea, euskal (g)uneak sortzea.

Joan den irailean abiatu zuten ekimena eta harrera ezin hobea izan du, lehenengo saiotik bete zen Kabigorri. Egoitz Zelaia Irunabar elkarteak kidearen esanetan, arrakasta oreka mantentzean omen datza, zentzu guztietan. Izen ezagunagoak eta ez hain ezagunak ekartzen dituzte, funtsezko baldintza bat abiapuntu: etxeko bertsolaria izatea, gertukoa. Hots, Bidasoaldekoa edo, hurbil egonik harreman naturala duten Bortzirietakoa, Oarsoaldekoa edo Lapurdikoa (bertan bizi edo bertako bertso-eskoletan arituak). Lau bertsolarik osatutako saioak egin dituzte oraingoz eta gutxienez bat emakumezkoa izatea ere irizpide dute (kopuruz, bailaran gehiago dira bertsotan dabilzan gizonezkoak). Saioetako protagonismoa lauen artean banatzea da beste helburua, denek uneren bat izan dezatela luzitzeko, eta “ez dadi-la saio arruntetan gertatu ohi den moduan batengan edo birengan zentralizatu”, dio Zelaia. Hala, zapada da haientzat: “Hasierako paniko eszenikoa gaindituta, ongi aritzen dira, Irunabarreko kideek



badutelako maila, baina ez daude ohituta jendaurrean kantatzera. Inguruko herrietako bertsolarientzat ere aukera ederra da, beste publiko baten aurrean norbere burua neurtzeko. Gainera, oso plaza polita da Kabigorri”.

Orain arte kantari entzun ditugu, besteak beste, Urko Casado, Julen Zelaia, Alaia Martin, Eneritz Zabaleta, Manu Goigana, Ioar Tainta, Haritz Casabal, Beñat eta Unai Gaztelumendi, Maddiane Txoperena, Odei Barroso edo Gotzon Aizpiolea. Etortzekoak dira Aitzol Barandiaran, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Amaia Elizagoien, Iñigo Ugarte, Miren Artetxe, Jokin Uranga, Manolo Arozena, Aitor Errazkin...

Lauzpabost urtez jarraitu nahiko lukete saiookin, belaunaldi gazteagoek ere gerora parte har dezaten. Erronka izango dute aurrean, Kabigorriko entzulea berezia dela baitio Zelaia: teknikari ez dio hainbeste-ko garrantzirik ematen, mezuari baizik, “artifizialtasunetik harago egiazkotasuna bilatzea eskatzen dio bertsolariari, eta jolas horretan sar-

tzen zarenean saioa lehertzen dela ikustea gauza handia da”.

‘Gure berts(i)oa, irundarrak bertso kantari’

Duela sei urte jaio zen Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea. Egun, 20 bat kide dabilta (buru-belarri, zazpi laguneko taldea), hirian eta eskualdean bertso mugimendua dinamizatzen eta zaletasuna sustatzen. Irunabarren gestiopean, hiru bertso-eskola daude Txingudin eta beste hiru ere gidatzen dituzte, Irungo ikastetxeetan. Zahar-etxeetan ere aritzen dira kantari, bloga daukate (irunabar.wordpress.com) eta Bertso Eguna antolatzen dute udaran. Diskoa atera berri dute gainera, *Gure berts(i)oa, irundarrak bertso kantari*. Hiriko bertso ondarea berreskuratzeko asmoz, iraganeko eta egungo bertsoak musikatu dituzte. 50 bat lagunaren parte-hartzetik sortutako diskoan, guztira 14 pieza aurkituko dituzu.

Mikel Garcia
Idiakez



Odol motaren arabera dietaren zentzugabekeria

1996. URTEAN Peter Adamok *Eat right for your type* liburua eman zuen argitara. Berehala *best seller* bilakatu zen, eta 50 hizkuntzataraz itzuli zuten. Naturopata horren arabera, odol taldearen arabera jakiak jateak, pisu galera eragiteaz gain, jatorri birala edo bakteriala duten hainbat gaixotasunen prebentzioan (minbizia, diabetesa, zirkulazioko gaixotasunak...) lagun dezake.

Adamoren iritziz, 0 taldea da gizakiengan zaharrena, ehiztarien eta biltzaileen garaikoa. Beraz, talde horretako pertsonen proteinetan oparoak diren jakiak (haragia, arraina) jan beharko lituzkete. Aldiz, odolaren A taldea neolitikoko nekazaritzarekin batera azaldu omen zen, eta odol hori duten pertsonen landare eta fruta jale izan behar lukete.

Urtarrilaren 15ean, Torontoko Unibertsitateko Ahmed El-Sohemy doktoreak sinatutako artikulua argitaratu zuen *PlosOne* aldizkariak. Ikertzaileak dioenez, ez dago loturarik odol motaren eta jaki motaren artean. El-Sohemyren taldeak, 1.455 lagun aztertuta, ondorioztatu zuen pisu galera zein gaixotzeko joera baldintzatzen duten faktoreak berdinak direla odol talde guztietako pertsonengan. Hau da, zaren odol taldekoa zarela, gutxiago jaten baduzu argaldu egingo zara, eta diabetesa edota minbizia prebenitzeko gauza berdinak saihestu behar dituzu. ■



ALEX-CC BY

Migrainaren eragina gutxitzeko bideak

Ziurrenik burukoa da minik arruntena gure bizitzan. Batzuetan oso garbi dugu zergatik gertatzen zaigun, baina besteetan ez. Aldiro errepikatzen denean, askotan horrekin bizitzen ohitzea baino ez zaigu geratzen. Ikerketa baten arabera, migrainari aurre egiteko botikak bezain garrantzitsua da informazioa.

ttiki.com/59924
(Gaztelaniaz)

Nanoguneren bosgarren urteurrena

Donostian dagoen Nanogune zentroak bost urte bete zituen joan den urtarrilaren 30ean. Eskala kuantikoaren oinarriko zientzia ikertu eta teknologiak garatzen dituen Euskal Herriko zentroa erreferentzial bihurtu da munduan. Zorionak!

ttiki.com/59925
(Ingelesez)

Tabakoari lotutako birusa erleen hiltzaile

Txinako Nekazaritza Zientzien Akademiako Ji Lian Li-k egin dako ikerketaren arabera, tabako landarean bizi den birus batek uste baino eragin handiagoa izan dezake erleen populazioaren beherakadan. Erleak polena hartzean kutsatzen dira, eta erlauntzean erregina kutsatzen dute. Hark, ondoren, birusa transmititzen die ipintzen dituen arrautzei.

ttiki.com/59926
(Frantsesez)

Rosetta zunda espaziala “esnatu” egin da

ESA



31 HILABETE isilean izan ondoren, urtarrilaren 20an lanean hasi zen Rosetta zunda espaziala europarra. Lurretik 800 milioi kilometrora dagoenez, bidalitako lehen seinaleak 45 minutu behar izan zuen guregana heltzeko.

Zundak hainbat kometa aztertu behar ditu. Lehena 67P/TG izeneko izango da, lau kilometroko diametroa duen izotz bola.

Zunda maiatzean hurbilduko zaio kometari eta azaroan bertan lur hartzea espero da. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Banilla

URTE BATZUK BADIRA. Izen larriko sukaldari baten mahaian. Haragi muttur bat eskatu genuen otordua bukatzen hasteko. Ni beti izan naiz gatzaren zalea, eta, okelak gatzik ez izatea gutxi bazen, gozoa iruditu. Sukaldariak berak argitu zidan: “Guk haragi orori banilla eransten diogu”. Izorrai, neure artean...

Nik banilla okasio bakan batzuetan besterik ez dut erabiltzen, eta jeneralean, azidoari lotuta. Ozpingintzan, adibidez. Sagardo barriken amarekin egindako ozpin garrafoikada bati “Bourbon” aldaerako banilla leka bat erantsita, sekulakoa lortuko duzu. Arrainarekin ez beste edozerekin erabiltzeko, gorena: entsalada, haragia, konpota... Nire iritzia. Bakoitzak bere disgustua.

Banilla izango da munduan gehien erabiltzen den urrintzaileetako bat. Banilla naturala, *Vanilla planifolia* orkidearen fruitua da. Mexikon txokolatearekin nahasian topatu

zuten, agidanean, europar kolonizatzaileek. Harrezkero, haren hedapena ez da makaldu.

Vanilla planifolia.

Réunion uhartea Île Bourbon zela, 1841ean, Edmon Albius esklaboak banilla eskuz polinizatzeko era asmatu zuen. Horrek ikaragarritzko bultzadizoa eman zion, eta Ameriketatik Indiako Ozeanoaren inguruko lurretara pasa zen haren ekoizpen nagusia. Uharte horretan bertan, lehenik, eta Madagaskarren eta Indonesian, gero.

Banilla fruitua berdetan biltzen da, eta ondoren bide luzea egin behar du nire ozpinera iritsi arte: lehenik galdarrastatu, lehortu eta ondoren ondu. Hilabeteetako lana... Zortzi-hamar bat. Banillina du lurrin berezi hori sortzen duen osagaia, baina banilla naturalean 171 osagai urrintzaile, behintzat, antzeman dira. Horra lekatxo soil baten artea. Izugarria.

Banillina artifiziaia sortzeko bide ugari landu dira. Egun, mundu osoan, urteko 50 tona inguru banilla natural ekoizten bada, artifizialetik 15.000 baino gehiago. Hori zelulosatik ateratzen da. Papergintzako edo azukregintzako astaproduktua da. Munduko kontsumitzaile handiena Coca-cola da. AEBetan, kastore ar helduek isats azpian, zakilaren eta uzkiaren aldamenean jariatzen duten olio antzekoa janarieran eta edarieran erabiltzeko gehigarri gisa amestitua da. Banilla edo mugurdi gustua ematen omen du... ■



JAKOBA ERREKONDO

Ahulari ahulgarri

MALUS X DOMESTICA, sagarrondo zaharra. Azpiko adarrak inausita, zauriak itxi ezinik. Goikoak, tximistak jota bezala, haizeak txikituko zizkion, edo sagar urte oneko fruitu kuttunen zamak emana, ezina egin zuen bizimodua... Bizi nahia bistakoa du, adar muturretan altsumak indarrean ditu, lerden. Itsusia delakoan lepoa moztu nahi dionen bat ez bada, urte luzez biziko da. Irauteko grina hori zuhaitzetan bezala bizidun gutxitan ezagutzen da. Mihurak eraso dio. Eta mihurak izerdia zurrupatuz kalte egiten dio, ala bizitza leuntzen duen lagun horietakoa du? Ahulean gozo egoten ere badakit nik... ■



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

· Ezagutu eta aukera ezazu
Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23




☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net

Bideo jokoa bere bakardadean

CAMBRIDGE, 1952. Alexander S. "Sandy" Douglas (1921-2010) informatika irakasleak doktore tesia prestatu zuen konputagailuen eta gizakien arteko interakzioaz. Bere hipotesiak frogatzeko adibide praktikoa bat behar zuen, eta horretarako tresna egokia eskura zeukan. Une horretan programa elektronikoak exekutatzeko gai ziren bi konputagailu besterik ez zeuden munduan: lehen programa 1948an exekutatu zuen SSEM (Small Scale Experiments Machine) hurbil zegoen, Manchesterreko Unibertsitatean. Bestea, berriz, EDSAC (Electronic Delay Storage Automatic Calculator), etxean bertan zeukan, Cambridgeko Unibertsitatean. Gela osoa betetzen zuen makinak aukera ezin hobea eskaini zion Douglasi bere tesia eredu praktikoa baten bidez azaltzeko.

Informatikariak joko ezagun sinplea aukeratu zuen programatzeko: Erresuma Batuan *Noughts and Crosses* (zeroak eta gurutzak) deritzo, AEBetan *Tic-Tac-Toe* eta gurean *Hirutan Hiru* edo *Artzain Jokoa*. OXO izena ipini zion, jokoan erabiltzen diren ikurrak zirela eta. Haren tesiaren edukiari jarraiki, jokoak ez zuen bi gizakiren arteko lehiarako aukerarik ematen; gizakiak makinaren aurka jokatu behar zuen. Jolas mahaia 35x16 pixeleko katodo izpien hodia zen eta, horrenbestez, Douglasen jokoa lehen bideo-joko grafikoa izan zela esan daiteke, pantaila grafiko digitala erabili zuen lehen izan baitzen.

Aurretik ere izan ziren saiakerak. 1947an Thomas T. Goldsmith Jr. eta Estle Ray Mannek lehen joko elektroniko interaktiboa sortu zuten. Misil simulatzailea zen, Bigarren Mundu Gerran erabilitako radarretan oinarritua. Baina zirkuitu analogikoak erabiltzen



CAMBRIDGEKO UNIBERTSITATEA



Ezkerrean, EDSAC konputagailua. Lerro hauen gainean, Alexander S. Douglasen OXO bideo jokoa.

zituen, eta misilen helburuak irudikatzeko pantaila gainjarriak erabili zituzten, grafiko digitalak ez baitzeuden oraindik erabilgarri.

1950ean, berriz, Claude Shannonek xakean aritzeko lehen programa diseinatu zuen eta edukiak *Philosophical Magazine* aldizkarian argitaratu zituen. Baina programa diseinu hutsean geratu zen, ez zen sekula gauzatu.

Horregatik guztiagatik zaila da bideo jokoen lehen mugarrria non dagoen zehaztea, eta askok OXOren grafiko digitalak erabiltzen dituzte estreinako bideo jokoa-ren titulua emateko irizpide. Hala ere, lehenbizikoa Pong izan zeneko ustea oso zabaldua dago. Ping-pong-ean oinarritutako jokoa 1972an merkaturatu zuen Atari. Bideo-kontsolen lehen belaunaldiko jokoa zen, eta arrakasta komertzial zabala lortu zuen lehen. Ziurrenik horregatik eman ohi diote ez dagokion titulua.

Hogei urte lehenago OXOk ez zuen arrakasta komertzialik izan. Ez zuen horrelakorik helburu, eta ezinezkoa zen gainera. Programa ezin zen merkaturatu, berau erabil zezaiken konputagailu bat edo bi besterik ez baitzeuden munduan. ■



Arrastoak

Oraingoan, berri txarrak Ponpeiatik

L'ESPRESSO



JOAN DEN ASTEAN, sail honetan bertan, berri onak ekarri genituen Ponpeiatik: ponpeiarren dietaren berri ematen zuen ikerketa. Ez da hori azkenaldiko aurkikuntza bakarra, Ponpeia industria eremuan lantegi baten teilatua oso osorik aurkitu baitute (argazkian). Baina 8.000 metro koadroko eremu

horretan merkataritza zentro bat erakitzen ari ziren, eta tokiko instituzioek, aurkikuntza babestu ordez, obrak amaitzeko baimena eman dute. Ondorioz, arrastoak suntsitu dituzte, eta antzinako erromatarren industriari buruzko informazioa lortzeko aukera paregabea betiko galdu da. ■

«Udalaren lanik garrantzitsuena bizikidetzatza sustatzea da»

Erreterria, 1978. Bertako alkatea da EH Bilduren izenean. Hedabideek herria famatu dute bizikidetzarako Eraikiz ekimena dela eta. “Erreterria famatu zuten indarkeriarengatik eta bakegintzan ospetsu bihurtzen ari da” izan dira bere azken hitzak. Alkatearena “lan gogorra baina polita da” esan digu ere, intentsitate handikoa.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

XABIN OLAIZOLA izan zen Erreterriako lehen alkatea, 1979an, HBkoa. “Herri munstroa” gisa azaldu zuen berau ARGIAN (*Artaso*, 1982. urtea/927 zbk.). PSEk gobernatu zuen herria hurrengo zazpi legealdietan. Aldi honetan ezker abertzalea gobernatzen ari da, EH Bilduren eskutik.

Egiguzu Erreterriaren argazki soziala. Xabin Olaizolak “herri munstroa” deitu zuen garaian Erreterria industrializazio garai sendo batetik desindustrializaziora iragana zen. 1950ean 15.000 biztanle zituen eta 1975ean 46.000. Horietatik %40 urte horietan estatutik etorriak ziren. Imajina ezazu horrek zernolako eragina izango zuen lur hedaduran eta jendearen pentsamenduan. Gizarte fenomeno izugarri bortitza da hori. Herriaren orografia lekuko: altuera handiko etxeak, kale estuak, dentsitate handiko auzoak, azpiegitura konplexuak... Industrializazio garaian *Manchester txikia* deitzen zioten herri honi. Industriaren gainbeheraren ondoren, fabrikak zeuden tokietan etxeak egin zituzten, baina gure garapen ekonomiko eta sozialerako ez dugu alternatibarik aurkitu. Langabezia tasa Gipuzkoako batz bestekoa baino altuagoa da, *per capita* errenta azkena daukagu. Erreterria/Orereta anitza da, jatorri ezberdinetako pertsonak osatua, oso dinamikoa, mugitzen ohi-





“Eraikiz ekimena goiko unea izan zen, baina badira beheko uneak ere. Normalizazio politikoa zerra hortzak dituen prozesua da”.

tuta. Proletario izaerari lotutako herri langilea.

Bizikidetzarako Eraikiz ekimenak ospea eman dio orain. Zein da 30 urtez gatazkan bizitako herritarrek eta alderdiak bake bideari lotzeko gakoa?

Legealdia hastean bi lan ildo nagusi zabaldu genituen: bat, krisi ekonomikoari erantzutea gure txikitasunetik, eredu txikiak baina egokiak planteatuz. Bigarrena, normalizazio politikoa helburu, bizikidetzara lantzea. Herri honek drama izugarria bizi du. 30 hildako ditu bizkarreen, baita zauritu, torturatu eta mehatxatu pila ere. 15 preso daude. Etorkizunerako oinarri sendoak jartzeko, aurrez aurre begiratu behar diogu gertatuari. Pertsonen arteko konfiantza sortzen hasi ginen eta konfiantza horrek aukera eman zuen Eraikiz ekimena [Zine zikloa, besteak beste] egin ahal izateko. Gero entzutetsua izan dena.

Pertsonen arteko “keinuak” egitearen garrantzia nabarmendu da.

Oinarria pertsonen konfiantza lortzea da, pertsonak egiten du bizikidetzara posible. Eta hori ez da geure herriaren ezaugarria, beste herrietan ere egiten ari dira. Dena den, eta halaber, halako egoera sortzeko tesuinguru politiko orokorra funtsezkoa da, hori ezean ez dago egiterik. Gurean pertsona ezberdinen arteko kointzidentzia izan da, diferentzia ideologiko handiak ditugun arren, ulertu dugu elkar. Elementu batek

batzen gaitu: jarrera humanoa. Keinuak egitearen garrantzia diozu, nik batzuk egin ditut, eta beste batzuek ere bai. Lehen keinua alderdi sozialistak egin zuen *Casa del Pueblon* berrinauguraziora gonbidatu ninduenan. Etxeak 28 eraso jasan zuen Erreterian. Joan izana ongi baloratu zuten.

Eraikiz zikloaren aurretik biktima guztiei telefonoz deitu omen zenien.

Deitu nien, baina izugarri lagundu zidan alderdi guztiek bat egin izanak. Biktima batzuen jarrera ezberdina litzateke alderdi guztiak bide horretan bildu izan ez bagina.

Keinuak eta ausardia. PPko Txema Herzogen ausardia aipatu da.

Txema Herzog zinegotziarena da kasu nabaria, PPrena jarrera immobilistena delako. Berak egin dituen deklarazioak egiteak eta horrelako ekimen batean parte-hartzeak balio handia dute. Nik bera errekonozitzen dut eta berak ni errekonozitzen nau. Txemak modu onean hitz egiten du gutaz eta guk ere hartaz. Bere jarrera goraiatu behar da, egoera ez delako batere erraza. Baina guztion jarrerak izugarri balio du, nork bere tamainakoa, denonak dira beharrezkoak.

Zuen esperientzia hobeto ezagutzeko. Azaldu iezaguzu benetako unea nolakoa izaten den, arerioak parez pare esertzen direnekoa.

Garrantzitsuena ideologia ezberdineko 300 pertsona areto berean lau egunez biltzea izan zen. Aretoa beteta partekatzea eta jatorri ezberdineko biktimen mezuak entzutea, denok denona entzutea, nahiz eta batzuetan denon gustukoak ez izan. Hori da bizikidetzara lantzeko modua. Hori ezin du Eusko Jaurlaritzak egin, hori herriak bere herrian egin behar du. Noski, herritarrek alderdi politikoaren ordezkariak eraman zituzten, beste egoera batean ez lirateke egongo. Udal mailako lanak garrantzia berezia dauka.

“Bertan geundenok bakarrik dakigu zer sentitu genuen gela hartan, bakearen eraikuntzan kide ginela sentitu genuen”, esan zenuen gero.

Pertsonon alderdi humanoa sentitu baikenuen. Txemaren jarrera aipatu dugu, PSEko zinegotziek era gogor eta pertsonalean bizi dute gatazka. Horrek izugarri eragin du harremanetan. Zazpi dira, denak ez dira berdinak, bakoitzak bere modura bizi du une hau. Iritsi garen tokira iristeko denbora behar da, lana gorabeheratsua izaten da. Eraikiz ekimena goiko unea izan zen, baina badira beheko uneak ere. Normalizazio politikoa zerra hortzak dituen prozesua da.

Presoen mundua hurbilekoa duzu. Nola hurbildu ETaren biktimen aldera?

Biktima kopurua zabala da, denak lokalizatzea ez da erraza. Ekimenaren berri helarazi genien. Euren datuak eta bizipenak biltzen hasi ginen. Baina biktima batek ez badu bertan egon nahi, ez dago ezer egiterik. Batzuek alkatea entzun nahi izan dute. Hitz egin dudanez izandako sentimendua ona da. Guztiekin elkarriketa zintzoa izan da. Jose Luis Caso zinegotziaren Juani alargunak eman zuen oso pauso sendoa. Eraikiz zine ziklora etorri zen, oihartzun mediatiko handia sortu zuen. Muxu eman genion elkarri eta hurrengo egunean egunkarietako portada izan zen. Keinu garrantzitsua izan zen, baina lehenago Radio Euskadiko *Ganbara* saioan elkarriketa batean Txema Herzog, talde parapolizialek 1983an bahitu eta tortura zuten pertsona bat, Manuel Zamarreño zinegotzia zenaren alaba eta laurok egon ginen. Testigantza gogorrak entzun

ziren, baita negarrak ere. Horrek emozioak askatzen lagundu zuen. Ni neroni eroso sentitu nintzen denekin, Zamarreñoren alabarekin ere bai. Zintzoki hurbiltzen garenean badago aurrera egitea. Izan ere, emozioak pertsonarengan eragiten du, une horretan norberak daraman gorrotoak bidea zapuztu dezake. Nire esperientzian ez da zorionez hori gertatu, baina gerta daiteke.

Keinuak, ausardia eta diskrezioa omen dira bake bidean beharrezkoak, hedabideak tarteko direla.

Bidea modu diskretuan egin behar da, hainbat gauza ezin dira zabaltu prentsaren bidez. Estatuko hedabide nagusien jarrera ezaguna da. Eraikiz ekimena ez zen gaizki baloratu, ez alderdi politikoek ez prentsak. Batzuek ez zuten baloratu eta hori ere positiboa da. Baina, kontuz, badago prentsan sektore bat bereberezko intentzioak dituen. Adibidez, Jaietarako Txosnen batzordeak baldintza batzuk jarriak zituen iraganean. Horietako batek horrela zioen gutxi gorabehera: “Ez dira jarrera espainolistak onartuko”. Legealdia hasi eta ez genuen hori behar bezala begiratu. PSEk hori salatu zuen eta *El Mundok* zabaltu zuen Eraikiz ekimena desitxuratzeko. Gezurrak gehitu ziren artikuluan. UPyDk fiskaltzara eraman zuen. Zorionez artxibatu zen. Hau da, hedabide batzuek egin duguna zapuzten saiatu dira eta saiaturiko dira.

Urtarrilaren 11ko manifestazioaren ondoren zer hauteman da herrian?

Inflexio puntua izan da, baina gizarte sektore konkretu batean batez

ere, beste sektore batean ez hainbeste. Dena dela ere, preso politiko-en eskubideen gaian iragana eta geroa markatu du. Herrietan ikusiko dugu zer sortzen den. Manifestazioak oraindik ez du eragin gizartean behar dugun adostasun transbertsala lortzeko, ez du hori ekarriko berehala. Desblokeoa gaitzen lagundu dezake noski, baina datozen gertakari politikoaren arabera betiere. Gure herrian ere *Gure esku dago* ekimena aurkeztu berri da, eta herritar anitzek babestu dute.

“Bakearen kultura sortu behar da, baina gure mentalitateak ez dira egun batetik bestera aldatzen”

EH Bilduk Gipuzkoan gobernatzea lagungarria izango duzue herrian?

Gipuzkoan badago bizikidetzarako programa bat. Hamalau herritan ari gara Foru Aldundiaren programa lantzen. Herri bakoitzak bizikidetzarako programak eta esperientziak eramaten ditu bertara. Uste dut udalerrietan garai berria eraikiko dela etorkizunean. Herrietako ekimenek goi-politikaren blokeo egoera “neurri batean” desblokeatzen lagundu dezake. Baina politikan inoiz ez dakizu zer gerta daitekeen bi hilabete barru. Horregatik oso inportantea da herritarrengandik gertu gauden erakundeetatik ekimenak martxan jartzea. Ekimen partekatuak izatea hobe, beto eskubiderik gabe, baina denok egonez. Udal baten lanik garrantzikoena bizikidetzarako sustatzea da. Izan

ere, goi-mailako foroetan akordioak lortu arren, horiek ez badira herrietara eramaten, ez badira bizikidetzarako txertatzen, balio dezakete goi-politikarako, baina gizartean lan asko egongo da egiteko oraindik ere.

Luzerako lana da bizikidetzarena.

Zalantzarik gabe. Hainbeste belau-naldirengan eragin du gatazkaren kulturalak! Guztien aldetiko joera izan da, inor ez da gatazkaren kulturaren kanpo geratzen. Bakearen kultura sortu behar da, baina gure mentalitateak ez dira egun batetik bestera aldatzen. Emozioz eta gorrotoz beteta dauden motxila horiek, agian ez dira pertsona batzuen kasuan inoiz hustuko, beste batzuek hustu ahal izan eta izango dute. Nik urte luzeko trantsizioa ikusten dut, hau ez da legealdi batean konponduko, ezta gutxiago ere, luzeago izango da. Horretara iritsi nahi badugu, egun sufrimendua eragiten duten elementuak desaktibatu behar ditugu. Bizikidetzan are gehiago sakontzeko lehenbizi sufrimendua eragiten duten elementuak kendu behar dira. Hala nola, epaiketa bidegabeak edota presoen egoera latza desagertu behar dira. Oso zaila da preso baten senide bat bizikidetzarako prozesu batera gerturatzea, bere egoera oraindik iraganeko bera delarik. Emozioak eta sufrimenduak dauden bitartean ez da batere erraza pertsona horientzat aldaketa bizitzea, beren egoera aldatu ez bada. Astero senideak ikustera joateko milaka kilometro egin behar badute, bizikidetzarako pausak nekez emango dituzte. ■



Elatzeta Ikastetxea



**Guztion eskola publikoa • Gaurko eta biharkoari erantzuteko
Harremanak elikatuz • Euskaraz bizitzen**

Araba 44, Landetxa Auzoa 20.305 IRUN • ☎ 943 62 80 10 • elatzeta@euskalnet.net • www.elatzeta.com

OCTAVIO ALBEROLA SURIÑACH

«Antifrankistoi bizkarra eman zigun Castrok»

Iraultza kubatarren hasi-masietan Castro eta Che Guevararen taldeari lagundu zion 50eko hamarkadan Mexikon. Franco diktadorearen aurka huts egindako atentatua antolatu zuen 1962an Donostian. Egun, Octavio Alberola Suriñach anarkistak (Alaior, Balear Uharteak, 1928) castrotarrak gogor kritikatzeko dituen oromen historikoaren defendatzaile sutsua da.

| AITOR AZURKI |

“HIRUROGEI inguru ziren. Mexiko-ko kubatar iraultzaile talderik handiena zen Castro anaien Movimiento 26 de Julio taldea. 1956an Mexikora heldu bezain laster jende gogotsuarekin kontaktuak egiten hasi ziren eta hala ezagutu nituen”. Batista diktadorearen aurkako Monkada kuarteleko matxinada zapuztu eta hiru urtez kartzelan izan ondoren, Castro eta beste iraultzaileak Mexikora nola iritsi ziren oso gogoan du Octavio Alberola Suriñach libertario heterodoxoak. “Ikasle mugimenduetan nengoenez, kontaktu asko nituen eta propaganda-ekitaldiak egiten laguntzen hasi nintzaien”, dio Alberolak. Guraso anarkisten semea –aita eskola arrazionalistako irakaslea zen–, 1939an frankistengandik ihesi muga igaro eta Frantziatik Mexikora joan ziren *Ipanema* ontzian.

Mexikon hazi eta ikasi zuen Octavio gazteak; unibertsitatara sartu orduko bor-bor zegoen ikasle-mugimenduan murgiltzen hasi zen. Mexikoko Gazte Libertarioak taldearen eraketan esku hartu zuen, eta 1948an kalean manifestu anarkista bat itsasten atxilotu zuten. “Mexikar Gobernuaren ezkutuko espetxe batean hilabete eman nuen Floreal Ocaña eta Francisco Rosell gazte erbesteratuekin eta Manuel González Salazar mexikarrarekin, atentatu bat prestatzen ari ginela ikusarazi nahi baitzuten. Ez ziguten inolako aginta-



“Akordio batera heldu ginen: euren herrialdeko diktadura eraistea lortzen zutenek gainerakoei lagundu beharko zieten”.

ri edo epailerik aurkeztu, bahiturik geunden eraikin batean eta zibilez jantzitako jendea genuen kartzelari”, azaldu du anarkistak. Azkenean aske utzi zituzten, baina aurrerantzean mexikar politikan parte hartuko ez zutela zioen dokumentu bat sinatu behar izan zuten.

Alberola Latinoamerikako diktaduren aurkako erbesteratuen mugimenduekin erlazionatu zen unibertsitatean: venezolarrak, dominikarrak,

peruarrak... Horiekin guztiekin batera Diktaduren Aurkako Latino-amerikar Frontea sortu zuen. “Akordio batera heldu ginen: euren herrialdeko diktadura eraistea lortzen zutenek gainerakoei lagundu beharko zieten, eta, Castrok ez zuen hori bete antifrankistokin”, kritikatu du gogor anarkistak.

Castrotarrekin hainbat ekitalditan

Kubatarrez itaundurik, Alberolak gogoan ditu garaioak: “Hainbat propaganda-ekitaldi publiko egin genituen Batistaren diktaduraren aurka, Mexikoko Espainiar Ate-neoan, adibidez. Sindikatuarekin harremana nuen eta euren lokalak erabiltzen genituen. Chapultepec-ko ekitaldi batean, esaterako, Fidel Castroarekin berarekin parte hartu nuen eta besteren batean bere arreba gazteenarekin”.

Hala ere, kubatarren xedea argia zen hasieratik: gerrilla bat sortuko zuten. Zein zen Alberolaren bete-behar nagusia? “Jendearekin kontaktuan jartzen nituen. Aitaren ikasle izandako gerra-hegazkinlari aragoar bat aurkeztu nien, adibidez, eta badaikit hainbat bidaia egin zituela Kubako mendietan borrokan ari zirenei materiala eramateko”.

Alberola ez zen egunerokoan kubatarrekin egoten: “Espainiar diktaduraren aurka nengoenez, euren ere ongi etortzen zitzaizkien antifrankistak euren alde zeudela esatea. Batik bat



Ezker-eskuin: 1958an kubatar iraultzaren alde hitzetan Mexikoko Espainiar Ateneoan; gurasoekin, 1947an Mexikoko ezkutuko kartzelatik irten ondoren; 1962an Biarritzen, Francoren kontrako atentatua prestatzeko heldu berritan (eskuinekoa).

euren arreba gazteenarekin nuen harremana, baita De la Rosa komandantearekin ere; eurak ziren nire kontaktuak. Che Guevararekin pare bat bileretan edo izan nintzen, izkina batean egoten zen eserita eta antzematen zen argentinarra zela, baina garaiotan ez zuen protagonismo handirik, ezta Raúl Castrok ere”, gogoratzen du anarkistak.

Bazen Batistaren diktaduraren aurkako beste talde iraultzaile kubatarrik Mexikon, Directorio Revolucionario, kasu. “1957an Batistaren jauregia eraso ondoren, batzuek Mexikora ihes egin eta gure ekitaldietan parte hartzen hasi ziren. Baina bi taldeen artean baziren desadostasun batzuk: Fidel eta bere taldea iraultza gidatzen saiatzen ziren eta besteak ‘lidergotza’ edo *caudillismo*-aren aurka zeuden”.

Che Espainia frankistan

Iraultzaileek 1959an Batistaren diktadura eraitsi ondoren, propaganda egiten eta laguntza ematen jarraitu zuen Alberolak. Anarkistak dio anti-frankistek laguntza eskatu ziotela

Castrori: “1961ean Frantzian nintze-la, kubatar enbaxadarekin hitz egin eta bisa emango zidatela esan ziguten, ni irlara joan eta elkarren arteko kolaborazioa gauzatzeko, baina bisa ez zen inoiz heldu... Ondoren jakin genuen Castrok ez zuela Francorekin harremana apurtu; Che Guevara ere Espainian izan zen poliziak babesturik. Franco eta Castro lagunak egin ziren”.

“Ez naiz ezertaz damutzen. Askatasunaren alde borrokatzen den jendea dagoenean, egin dezakegun okerreana da etxean geratzea”

Nolanahi ere, CNT, FAI eta Gazte Libertarioen Iberiar Federazioak Limogen 1961ean egindako kongresuan Defensa Interior taldea sortzeko eskatu zioten. Helburua: Franco hiltzea. “1962an Frantziara bidaiatu eta Ipar Euskal Herrian anarkista batzuen etxean antolatu

genuen Francoren aurkako atentatua. Aieten lehergailua jarri genuen, baina zoritxarrez, diktadoreak urteroko udako Donostiara bisita egunez aldatu zuen. Azkenean, lehergailuaren pila agortzekotan zela leherrarazi behar izan genuen”. Alberolak ezaguna ez den datu bat eman digu: bi gizon eta emakume bat –hiruak frantziarrak– izan omen ziren bonba ezkutatu zutenak.

85 urte izan arren, Alberolak hitzaldiak ematen segitzen du eta munduko bazter askotako ekimen anarkistak laguntzen ditu, artikulua eta liburuak idatziz: “Ez naiz ezertaz damutzen. Askatasunaren alde borrokatzen den jendea dagoenean, egin dezakegun okerreana etxean geratzea da. Espainiarroei latinoamerikarrek Francoren aurkako borrokan lagundu gintuzten lez, normala zen Mexikon guk ere laguntzea herriek askatasuna erdietsi eta libreki euren aukera politikoa erabakitzeko asmoz”. ■



ARABAKO BERTSO-KUADRILLA ARTEKO

- bat-bateko 15 talde
- idatzizko 19 talde
- lagun arteko 19 saio

azken jaia apirilak 5

urtarrilak 18 - apirilak 5

www.bertsozale.com/araba




«Elebitasun orekatua ikusi dut Chiapasen, ez espainolak tzotzila ordezkatzan duela»

Hizkuntza maiak ditu aztergai Lourdes de Leon Pasquel mexikar hizkuntzalariak. 1983. urtetik Chiapasen ari da bertako tzotzil eta tzeltal hiztun komunitateak ikertzen.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

1978AN HASI ZEN IKERKETAN, hizkuntzalaritza eta antropologiaren artean zangalatraba. Oaxacako mixtekoen artean jardun zuen lehenengo, eta Oregonera (AEB) lanera migratzen zuten mixtekoen bidean gero. Urte asko dira ordea, Chiapaseko haurren berriketei belarria jarrita dabilela. Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak egin-dako biltzarrak gonbidatu zuen joan den udazkenean eta Bilbon egin genion elkarrizketa.

Chiapasen diren tzotzil eta tzeltal hiztun komunitateen hizkuntza egoeraz ari zara lanean aspaldi. Zuk, dena den, "narratiba" duzu xede.

Bai. Jaiotzatik hiru urte bitarteko hizkuntza jakiekuntzaz jardun izan dut ikerketan, eta bestalde, haurrak lau urte betetzen dituenetik nola garatzen duen narratiba aztertu dut. Hori eginga dut, eta orain, berdinen taldeak —zuentzat, hemen, "kuadrillak"—, aztertu ditut, lagunarte horietan hizkuntza eta kultura zertan diren. "Berdinen taldeak" diot, baina esan beharra daukat talde sendetuak direla, hau da, anai-arreba dira, edo lehengusu-lehengusina gutiz gehienetan. Hor hainbat adin tarte dituzu, izan urtebeteko haurrak, izan hamabi urtekoak, denek

batera egiten baitute jolas, anaia gehienaren ardurapean, hark begiratzen baititu txikiak. Berak agintzen du. Horixe gertatzen da familia ugaritan. Nik, hortaz, haurren mundua aztertu ohi dut, dela jolas eta jokoetan, dela eguneroko bizimoduan.

Non hitz egiten dira, Chiapasen, tzotzil eta tzeltala?

Mexiko hegoaldean, Chiapaseko estatuan —ezaguna, arrazoi asko direla tarteko—, hainbat hizkuntza maia hitz egiten dituzte, eta gehien hitz egiten direnak dituzu tzeltala eta tzotzila. Antz handia dute bi hizkuntzek ere. Gaztelania eta katalana balira bezala, eman dezagun. Batzuek eta besteek erraz ulertzen dute elkar, hiztun kopurua ere antzekoa dute, eta biak daude oso

bizi. Mexikon badira hizkuntza gehiago ere. Horietarik askok, espainolaren antza hartu dute. Alabaina, Yucatan, Chiapas eta Guatemalan hitz egiten diren maia hizkuntzek bizi-bizi irauten dute. Are gehiago, Indoamerikako hizkuntza indigenen artean, haiek dira bizienak: komunitateetan ohikotasunez erabiltzen dituzte; haurrek, dudarik gabe, eta askotan, hiztunak elebarrak dira tzotzil eta tzeltalen.

Bi hizkuntzak bizi-bizi direla esan duzu.

Komunitateek hitz egiten dutela, esan nahi dut. 300.000 dira tzotzila, zertxobait gehiago tzeltal hiztunak. Bestalde, badira maia hizkuntza gehiago ere. Hala tzotzila nola tzeltalak, komunitate trinkoak dira, batere ez barreiatuak. Handienak Chamula eta Sinakantan herrietakoak dira. Lehenengoan, 30.000 hiztun dira; bestean, 70.000. Bestalde, badira komunitate gehiago ere tzotzil hitz egiten dutenak, baina bestelako udalerrri batzuetan dira. Izan ere, joan deneko hamarkada honetan migrazio handia izan da, jende asko joan da estatutik kanpora, eta harago. Chamulako asko, adibidez, AEBetara joan ohi dira. Horrek jakina, komunitatea barreiatzea dakar. Herrian pertsona nagusiak,

“Guraso askok diote haurrek ez dutela ezer ikasten eskolan eta, gainera, ezgauza bihurtzen direla, ezgauza soro lanerako, ezgauza familia lanerako”



“Giza eskubideen aldarrikapenak asko dira, baina norberaren hizkuntzan eskolatzeari dagokiona ez dago implementatuta”.

emakumezkoak eta haurrak gertzen dira. Gizonezkoak dira Iparraldera –guk esaten dugun moduan, Iparraldera [AEB]–, lanera abiatzen direnak. Migrazio berria da, esango genuke, eta itzulera duena.

Zertan dira tzotzil eta tzeltal komunitateak gaztelaniarekin harremanetan sartzen direnean? Eskolaz ari naiz, jakina.

Chiapasen oso eskolaratze maila apala dugu. Bataz beste, Lehen Hezkuntzako bigarren mailara heltzen dira bertakoak... Eskolatzea, berez, derrigorra da, ofiziala. Mexikoko konstituzioak dio haur guztiek eskolara joateko obligazioa dutela, behartuta daudela. Komunitate hauetan, aldiz, jendeak ez bidaltzeko erabakia hartua du, esanez haurrek ez dutela ezer ikasten eskolan eta, gainera, ezgauza bihurtzen direla, ezgauza soro lanerako, ezgauza familia lanerako. Eskolak ez diela beraiek espero duten tresnarik ematen.

Zein iritzi duzu zuk?

Eskolak, besteak beste, ez ditu hizkuntza indigenan hezten, espainola

ikasten dute, hori bai, eta irakurtzen –neurri batean bederen–, eta aritmetika eta gramatika hastapenak bereganatzen dituzte. Horra heldurik, ordea, gurasoek ikusten dutelarik beren seme-alaba etxera sartu den dokumentua irakurtzeko gai dela, nahikoa dute. Hartu eta beraiekin batera eramango dute ondoko herri nagusira erosketak egitera. Literazidade hori baliagarri zaio familiari, baina bigarren mailaz gero, gutxiengo dira eskola balioesten dutenak. Eskolan irauten dutenak, besteak beste, gobernuak egin ohi dituen sustapen kanpainei esker gertzen dira, gobernuak esaten baitie eskolak familiari on egiten diola. Jakina, bekak ere eskaintzen ditu, hilerokoak, eta horrela zenbait haur bigarren maila hori eta gero ere, eskolara lotzea lortzen du.

Irakaskuntza espainolez da betiere.

Espainolez. Komunitate tzotzil eta tzeltal hauetan, irakasleak ez du espainiera baizik egiten, metodoa espainolez da, liburuak eta ikasmaterialak, denak, espainolez dira. Kontua da, hala ere, zenbait kasu-

tan irakaslea tokian tokiko hizkuntza eta espainola, biak hitz egiteko gai dela eta, orduan, liburuan espainolez datorrena hartu eta tzotzilera edo tzeltalera itzulirik ematen dizkiola argibideak ikasleari. Askotan, gobernuak, guztizko intentzioan, bertakoa ez bestelako hizkuntzaren bat hitz egiten duten irakasleak bidaltzen ditu komunitate hauetara, espainolez hitz egitera behartzeko denak. Diskurtso ofizialak esango dizu Mexikoko hezkuntzak gazteletratzea ardatz zuen hezkuntzatik –50eko hamarkadako sistematik, alegia–, hezkuntza elebidunera egin duela jauzi; elebiduna, eta kulturbiduna. 90eko hamarkadaz gero titulu horiexek eman zizkioten hezkuntzari: “elebiduna eta kulturartekoa”.

Baina zuk agertu duzunez, espainol hutsez irakasten diete eskolan.

Maia eskualdean, Chiapasen, esaterako, eskola ofizialak ez dira elebidunak. Esperientziak bai, badira, hezkuntza elebiduna eta kulturartekoa saiatzeko, baina horixe dira, esperientziak. Estatuaren hezkuntza proiektutik aparte egiten dira.



“Komunitate autonomo zapatistetan ama hizkuntzan hasten da irakaskuntza, eta gerora sartzen dute espainola”.

Talde alternatiboak dira, beren curriculum propioa osatu dutenak, ama hizkuntzak abiapuntu dituztelarik. Eskola hauek asko “Eskola Autonomo Zapatista” izenekoak dira. 1994an bereizi ziren hezkuntza sistema ofizialetik eta beren eskolak sortu zituzten.

Gurasoek bere horretan onartzen dute gaztelaniaz irakastea?

Batzuetan bai, besteetan ez. Badira komunitate batzuk zalantzarik ez dutenak, eta diotenak: “Gure semeak espainola ikastea nahi dut. Etxean tzotzila hitz egiten dugu eta, hortaz, gure seme honek espainola ikastea behar dut”. Jarrera ezberdinak dira, alegia. Komunitate autonomo zapatistetan, berriz, bestelakoa da planteamendua. Hau da, ama hizkuntzan hasten da irakaskuntza, frogatuta baitago lehenengo ikaskuntzari dagokionez, irakurketa-idazketarako, adibidez, askoz egokiagoa dela ama hizkuntzan bideratzea. Gerora sartzen dute espainola.

Zein hizkuntzatan gauzatzen da “narratibaren garapena”, zuk aztertu duzun ikerketa, alegia?

Hiru urtean, haurren jarraipena egin nuen, tzotzila beren baitan nola sortzen den jaso nuen. Ondorioetan esan nuenez, tzotzil haurrek beste edozein hizkuntza eta kulturatako haurrek bezala, modu berean garatzen dute hizkuntza. Zerutik jakina zen hori, baina, beste gauza bat ez hain jakina, haur horiek ama hizkuntzak zehazten dizkien ildoak ere garatzen dituztela.

Zer esan nahi duzu: “ama hizkuntzak zehazten dizkien ildoak garatzen dituzte”?

Ildo ezberdinak garatzen dituztela, ingelesez ikasten duten haurrek garatzen ez dituztenak, adibidez.

Zein dira ildo horiek, gurean barrundatze aldera besterik ez bada ere.

Esaterako, psikologoek arreta handia ematen diote haurrak espazio harremanak eratzeke duen moduari. Horrela, objektu bat zerbaiten

gainen dagoen, zerbaiten barruan, edo ondoan, aztertzen dute. Ingelesez zenbait preposizio erabiltzen ditugu, oso orokorrak, *in*, *on* eta gisakoak. Tzotzilen, aldiz, aditz bereziak dituzte espazio harreman horiek adierazteko. Honenbestez, era honetakoak bereizi, eta esango duzu: “objektu luzea, mahai gainean ezarria”, “objektu biribila, mahai gainean ezarria”, “objektu oinarriiduna, mahai gainean ezarria”, “objektu luzea, edukiontzi biribilean sartua”... Eta hori hiru hots –kontsonantea, bokala, kontsonantea–, txikiren bidez egiten da. Haurrak hasiera-hasieratik ikasten du horrela hitz egiten, hau da, objektuaren eiteari eta objektu hori bera nola dagoen jarrita beharrik hitz egiten. Psikologoek, orduan: “Ezinezkoa da, objektuen ezaugarriei antzematea eskatzen du horrek, eta hori haurrak geroago garatuko duen gaitasuna da”. Haur tzotzilak, berriz, ingeles hiztunak ez bezala, hasiera-hasieratik hasten dira espazio harreman horiek adie-

razteko hitz eta aditz-erro bereziak erabiltzen.

Berezkotasunez...

Eta arazorik gabe. Eta, hein berean jokatzeko dute haur korearrek. Horixe interesatu zitzaidan niri, eta horretan sartu nintzen buru-belarri: “Espazioaren semantika hizkuntza jabekuntzan” deritzo gaiari. Joan deneko bost urtean, haur haiekin batera hazi naizenez ni, jakin nahi izan dut zer gertatzen den beren etxe girotik eta zaintzaileetatik urrundu eta beren adin bereko neska-mutikoekin harremanetan hasten direnean, zer ikasten duten ondoko neska-mutikoen-gandik. Sozializazio iturri baita hori ere.

Ez dago esan beharrik ere...

Psikolinguistikari askotan aipatzen da zein den haurrak entzuten duen hizkuntzaren iturria, behar-beharrezkoa baitu iturri hori, nahitaezkoa. Hizkuntza entzun ez duen haurrak ez du hizkuntza ikasiko. Jakin dudanez, euskaraz ikasten ari diren haurren kasuan ere bada hori: gurasoen bidez entzuten dutena kontuan hartzea ez da nahikoa, eskolara joan eta bestelako iturrietatik ere entzuten dutena hartu behar da kontuan. Bizitza bat da, etxetik kanpoko, eta horrek ere asko erakusten die, haurrak sozializatzen ditu. Hitz egiteko bestelako moduak dira, mundua ikusteko bestelako erak. Horretan, hor da beti berdinen taldea, askoren artean eragile.

Askoren artean eragile? Usteko nuen hori baino garrantzi handiagoa zuela berdinen taldeak, zenbait adinetan batik bat.

Adinaren arabera, egia da, inguru horrek garrantzi handiagoa hartzen du. Bai, askotan, gurasoek uste dute beraiek bakarrik direla informazio

iturriak, baina, haurrak hazi ahala, indar hartzen du eskolatik kanpoko giroak, eta berdinen taldeek. Horretan ari naiz lanean, berdinen taldeek bigarren hizkuntza baten sozializazioan jokatzeko duten rola aztertzen. Etxean izan litezke tzotzil elebarrak, edo elebidunak, ezkontza mistoak ere gertatzen baitira, eta nik aztertu nahi dut nola den haurren eta beren hizkuntzaren bizimodua. Eskuarki, ikerketak etxe barrura begira jarri ohi dira, etxean ikasitako dute helburu. Nik bestelako galdera egiten dut: “Zer gertatzen da neska-mutilak kanpoan dabilzanean, berdinen artean, adin bereko-

“Uste izatekoa zen txikiek nagusien bidetik joko zutela, espainolera lerratuko zirela, baina frogaturik dut haur horiek tzotzil hitz egitea aukeratzen dutela”

ekin elkarreraginean?”. Horrela, espainiera nola sartzen den haien barrura ikusten ari naiz. Badira familiak, tzotzil elebarrak —hala ere, ez dira isolaturik bizi, hor dira hedabideak, hor etxetik lekora dagoen bizitza, espainolez—, eta kontua da jakitea nondik eta nola ateratzen duten gaztelania.

Eskolatik, diozu, eta hedabideetatik.

Bai. Eta horietan jasotako informazioa beren jolas eta jokoetara eramanen dute neska-mutikoek. Badira familia elebidunak —aita tzotzil mintzo, ama espainolez—, eta kontuan harturik espainierak duen prestigioa —hau da, espainola dela hizkuntza balioetsia—, aztertzen ari naiz berdinen taldeetan ere ez ote den espai-

nola nagusituko, tzotzil hitz egiten duten neska-mutilak ez ote diren espainolez hitz egiten duten neska-mutikoen itzalera lerratuko. Oraingoz, elebitasun orekatua ikusi dut Chiapas hegoaldeko komunitate hauetan, ez espainolak tzotzila ordezkatzeko duela.

Prestigioa espainolak duenari, ez ote da, lehenago edo berantago, ordezkapena gertatuko?

Horixe da nik neure buruari egiten diodan galdera. Oraingo, haurren eguneroko bizia dokumentatzen ari naiz besterik gabe, jolasean ari direnean, jokoan, borrokan, lanean. Eta komunikazioa antolatze moduak jabetu naiz: tzotzil hitz egitea aukeratzen dute tzotzil hitz egiten duen bat ondoan dutenean eta, aldiz, espainola, espainolez mintzo dena inguruan dutenean. Ez dago, hala ere, inposizio, nahiz eta haurrek beren joerak inposatzera egiten duten! Botere harreman handiak gertatzen dira berdinen taldeetan. Ni behatzen ari naizen taldea, tzotzil hitz egiten duten haur txikiak baino nagusiagoak dira. Uste izatekoa zen txikiek nagusien bidetik joko zutela, espainolera lerratuko zirela, baina frogaturik dut haur horiek, espainolez hitz egiteko gai izanagatik ere, tzotzil hitz egitea aukeratzen dutela, amamak tzotzil hitz egiten dielako, baita amak ere... eta, horrela, tzotzil irauten dute. Berdinen artean direnean, espainolera lerratzea esperoko genuen arren, tzotzil segitzen dute, hau da, neska-mutiko nagusiek espainoletik tzotzilera aldatzen dute hizkuntza, txikiok hitz egin behar dutenean. Bizitza elebiduna egiten dute, beraz, etxe-ko eta familiako hizkuntza errespetatzen duena. Orain arte ikeritu dudanez, bederen. Ageriko! ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Kalitate azterketan, ARGIA Europako handien gainerik

Euskal Herriko Unibertsitateko HGH (Hedabideak, Gizartea, Hezkuntza) ikerketa taldeak euskarazko hiru hedabideren kalitatea neurtu du, eta Europako bost komunikabide handiren emaitzekin alderatu. ARGIAk lortu du guztien artean notarik onena.

| JON TORNER ZABALA |

“GIZARTE EKARPENEN atalean marka guztiak hausten ditu ARGIAK. Prentsak berezkoa beharko lukeen agintearen kontrolaren funtzioa eta eztabaida publikoaren sustapena dira atal honetan indargune nagusiak. Pentsamendu kritikoa garatu eta zabaltzeko xedez burutzen den kazetaritza da, beraz, ARGIAk jorrazten duena”. HGHren txostenetik hartu dugu pasartea.

ARGIA, *Berria* eta *Goiena* agerkarien papereko eta interneteko albisteak aztertu ditu HGH lan taldeak, eta Europako erreferentziazko bost egunkariren (*Financial Times*, *Le*

Monde, *Frankfurter Allgemeine Zeitung*, *Corriere della Sera* eta *El País*) edukiekin alderatu.

Kalitate azterketan 6,23ko puntuazioa lortu du ARGIAk, zortzietan altuena (ikus grafikoa). 5,07 puntu-ko nota (10etik) eman du batez beste euskarazko prentsak, eta 5,39koa Europako handiek. Alde txiki samarra, aintzat hartzen badugu bakoitzak zer baliabide dituen. “Ez gaude suziriak botatzeko egoeran, baina sarri, konplexuak medio, txikiok pentsatzen dugu gauzak ez ditugula hain ongi egiten. Handia izateak eta hizkuntza ez minoriza-


tuan aritzeak ez dakar ezinbestean kalitate hobe. Badaukagu zer hobetu, noski, baina baita handiei zer erakutsi ere, ekarpen sozialaren arloan bereziki”, esan digu HGHko kide Alazne Aiestaranek.

Bost aspektu biltzen ditu alor horrek: botere publiko zein pribatuaren kontrola, eztabaida publikoaren sustapena, giza duintasunari errespetua, kultur aniztasuna eta gizarte bazterkeriaren aurkako borroka. 2,5etik 0,69ko puntuazioa lortu dute Europako hedabideek, 0,97koa euskarazko hirurek batez beste, eta 1,4koa ARGIAk.

Hobetu beharrekoek galdetuta, euskal medioek huts gutxiago egin beharko luketela dio Aiestaranek, interneten bereziki, berehalakotasunari erantzun beharrak labain egitera eramaten baititu kazetariak.

Metodologia

“Metodologia oso zorrotza” erabili du EHUKo lan taldeak, Aiestaranen hitzetan. “Horregatik dira notak baxuak”. 2001-2013 urtealdia aztertu dute. Batetik, papereko albiste garrantzitsuenen analisi diakronikoa egin dute (ARGIAren 84, *Berriaren* 164 eta *Goienaren* 240). Bestetik, 2013ko urtariletik martxora bitartean paperean zein webguneetan plazaratutako edukien azterketa sinkronikoa (82 albiste guztira). ■



ARGIA / ITURRIA: EHUKO HGH IKERTALDEA

argia.com EHUKo HGH taldeak egindako ikerketa irakurri dezakezu gure webgunean, PDF formatuan.



Eusko Jaurlaritzaren V. Erabilera Plana: euskara laneko hizkuntza izatea helburu

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plan Nagusia aurkeztu du. Jomuga administrazioko langileen artean euskara laneko hizkuntza bihurtzean jarri dute. Ezagutza datuen, edo hobe esan egiaztatutako euskara gaitasun mailen berri, Patxi Baztarrika sailburuordeak berak eman zuen. Egiaztagiriek diotenetik eguneroko erabilerara jauzi handia dago, eta Baztarrikak aitortu du hori.

1995ean Eusko Jaurlaritzako langileen %23,5 ziren lana euskaraz egiteko gai. Gaur egun %51,1ek dagokion hizkuntza egiaztagiria daukate, eta %9,8k dagokiona baino maila bat baxuagokoa. Beraz, langileen %59,9 euskaraz neurri batean lan egiteko gai dira. Guztira 4.052 langile. Gauza bat da gaitasuna eta bestea erabilerara. Baztarrikak esan du ondokoa:

“Aurrerakada hori oso apala izan da euskara lan hizkuntza gisa erabiltzerakoan, ez da izan ahal bestekoa, ez da izan ezta ere behar bestekoa”. Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plan Nagusiak ildo bereko kritika jaso du: “Anomalia bat da, desorekaren seinale, euskara ere hizkuntza ofiziala izanik eta herri langileen eta goi kargudunen erdia baino gehiago euskalduna izanik, euskara ez izatea, gaztelania bezala, laneko hizkuntza ohikoa gaur den baino askoz neurri handiagoan”. Hortik helburu nagusia euskara zerbitzu eta lan hizkuntza gisa erabiltzea.

Beste helburua, herritarrek administrazioarekiko duten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea egiazki betetzea da. Lau xede zehatzetako batek dio lehentasuna emango zaiela zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan.

Bahea

Olatz Castrok Berrian esanak:

“Horixe da gure euskal telebistak behin eta berriz egiten diguna: itxurak mantendu barne politikan apusturik egiten ausartu gabe. Zein ederra den *Sukaldari* izenez bataiatzea erdarazko programa izango dena. Kasualitatez, ikusleria handi bat, parte-hartzaile edo lehiakideetako asko eta baita aurkezlea ere euskaldunak izanda! Baina ez da lehen aldiz ikusten dugun adibidea, *El conquistador del fin del mundo* ere antzeko adibide dugu; izan ere, audientziak agintzen du, herri honetako arlo askotan bezala.

Zertarako egin apustu?, zertarako hordago handira?, farolekin musean ere irabaz dezakegula irakatsi digutenean? Horrela ez dugu inoiz jokorik irabaziko, ez joko garbirik behintzat!”.



EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Davos, kapitalismoaren egoitza

DAVOSEN, Suitzako luxuzko eski estazioan, 2.500 lagun bildu dira munduko elite politiko, sozial eta ekonomikoak ordezkatzuz. Hortik atera den argazkian ikus daiteke egiaz munduan zeinek agintzen duten. Agintzen dutenak ez dira politikariak eta euren gobernuak. Merkatariek, multinazionalak, bankuek, pentsio funtsek eta komunikabide handiek politika zehaztu eta bahitu dute euren intereserako. Politikariak kudeatzaileak baino ez dira. Politikariak, bankariak, finantzariak, enpresariak... denak batera egon dira Davosen, sistema kapitalistak ematen dizkien etekinak mantentzeko, ahalik eta kostu gutxienarekin gainera.

Kezkatu itxurak egin dituzte desberdintasunen eta gazteen langabeziaren aurrean, baina beraiek dira horien arduradun. Azkarrak dira oso, badakitelako desberdintasun eta langabezia hori jasaten dutenek leherketa soziala eragin dezaketela. Horregatik diote neurriak hartu behar direla egoera horiek arintzeko.

Eta hain azkarrak direnez, enplegua kaskartzeaz arduratu dira, lan harremanak desarautu dituzte eta lan kostuak murriztu (soldatak, kalte-ordainak, kalera-tzeak...). Ustez langabezia arintzeko hartu dituzte neurriok, baina esklaboak eta gizaki otzanak sortu dituzte, XXI. mendeko pertsonak izan beharrean. Euren interesa eta ardura ez da pertsonen duintasuna, interesatzen zaiena da formulak bilatzea, itxuraz humanoagoak, kapitala pilatzen segitzeko inolako erantzun sozialik gabe. Eta politikariak ondoan dituzte, paradisu fiskaletan eskurik sartu ez dadin, zerga handiegirik jar ez diezaieten, eta krisi egoeran, bankuak erreskatatu daitezzen diru publikoz. Hori justifikatzeko prentsa erabiltzen dute gainera! Davosek kapitalismoaren argazki garden hori eskaini digu.



Juan Mari Arregi

Jacques de Groote, gaurko lapur handien maisu zaharra

Iazko urrian bost enpresaburu txekiarrekin batera Jacques de Groote belgikarra kondenatu zuen Suitzako epaitegi federalak Txekiako estatuari 600 milioi dolar ostu izanagatik. Ateratzen dira delituen egile txikiagoak telebistan: De Groote Nazioarteko Diru Funttsaren eta Munduko Bankuaren zuzendari izana da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GOOGLERI “JACQUES DE GROOTE” galdetuz gero, argazkien atalean, 86 urte gizon itxura nobleko bat erakutsiko dizu. Argazki gutxi utzi ditu Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) zuzendari boteretsu izandakoak. Domaia da munduko finantzen elitean bizi osoa emanik, foto bakarretakoa auzitegiko atarian ateratzea.

La Libre Belgique egunkarian Ariane Van Caloeck honela laburbildu zuen afera urriaren 11n plazaratutako “Jacques de Groote condamné à une amende avec sursis” kronikan: “Zigor benetan txikia ezarri zaio, baina Jacques de Groot NDFaren administratzaile belgikarrak helegitea jarriko dio, amaiera arte borrokatuko da”.

Bellinzonan egoitza duen auzitegi federal suitzarrak 75.000 franko suitzarreko isuna ezarri dio Txekiako MUS meategiaren auzian. 2011n MUS konpainiako sei txekiar eta De Groote auziperatu zituzten diru zuriketa eta kriminalitate ekonomikoak egotzirik. Akusatzaileak uste izan du Txekiako energia konpainia bat baino gehiago berenganatu dutela iruzur bidez (...) sozietate sare nahasi bat antolatu zutela herrialde askotan zabaldua, tartean Suitza, konpainiaren diruak ostu eta horiekin erosteko konpainia bera, xentimorik pagatu gabe”.

Albistegietan oihartzunik merezi izan ez duen auzian harrapatutako De Groot nor den Eric Toussainti esker dakigu gaur. Europa mailako altermundialisten liderren artean ezagunenetakoa den Toussaint Attac eta Hirugarren Munduaren Zorra Ezabatzeke Batzordea (CADTM, frantsesezko sigletan) erakundeen buruetakoa, berrikitan liburuxka gordina eskaini dio: *Procès d'un homme exemplaire* (Gizon erudugarri baten auzia).

Europaren norabideak gidatu dituen elite ekonomiko eta politiko-entzako erudugarria, bai, De Groot. Toussaintek laburbildutako haren biografian irakur dezakegu 1960an, 32 urterekin, orduan Belgikarena zen Kongoren independentzia bideratu behar zuen negoziaketa mahaian aritu zela, funtzionario.

1960ko ekainaren 30ean Kongoko lehen ministro Patrice Emery Lumumbak hitzaldi gogoangarri bat egin zuen Belgikako Baudouin [Espainian *Balduino* izenez famatua] erregearen aurrean, Afrika osoaren askapena aldarrikatuz, aginduz ahalginduko zela “Kongo izan dadin Afrika osoaren izar” eta zainduko zuela “gure aberriaren lurren emaitzak gozatu ditzaten bere seme-alabek”.

Lepoa galtzea ekarriko zion ausardia hark Lumumbari. Mobutu

CTK hedabide txekiarren gunean, Jacques de Grooteren aurpegia erakusten duten argazki bakanetakoa: Suitzako Bellinzonako auzitegi federalera sartzen hartu diote. 75.000 frankoko (60.000 euro) isuna ezartzen dion epaiari helegitea aurkeztuko diola deklaratu dio *La Libre Belgique*ko kazetariari: “Niretzako premiazkoa da behingoz bukatzea hamar urtez moralez, dirutan eta –86 urte dauzkat– osasunez hondoratu nauen prozesu hau. Frogatu ahal izango dut ez nintzela jakinaren gainean egon. Ez dut kondenarik nahi mundu honetatik joan aurretik”. Beretzat Eric Toussaintek idatzi duen *Procès d'un homme exemplaire* liburua komentatzean, Jean Ziegler abokatu eta politikari suitzar ezagunak idatzi du: “Nolaz lortu du De Groote bezalako pertsonaia batek hogeitaz berraztertutako burutzea bere jardura susmagarriak Munduko Bankuan eta NDFean? Zein eduki ditu babesle eta zein konplize?”

Sese Seko jeneralak preso hartu eta hil zuen hurrengo urtean. Kolpean sartuta zeuden Kongoko zenbait indar, baina disimulurik gabe Belgikako eta AEBetako agintarien zerbitzura. Urte horietan De Groote Munduko Bankuan eta NDFean ari zen, Belgikako ordezkari zena. Aldi berean Kongoko Banku Nagusia-aren aholkulari ere bai.

Kasualitatea? Toussaintek “*Banco Mundial: el golpe de Estado permanente*” liburuan azaldu adu nola nazioarteko erakunde hura eta Belgika elkar hartuta zeuden, Mobuturen erregimenarekin batera, Belgikak Kongon egindako zorraz estatu berriak bere gain har zitzen.

Kongotik Txekiara, Ruandan barna

Karibe itsasoan Haitik 1804an independentzia lortu zuenetik, potentzia kolonialek gauza bera egin dute beti: metropolien probetxurako kolonietan egindako inbertsio eta gastuen zorraz, independentziaren ondoren kolonia horietako jendea pagarazi. Eta herri teoriarik askatuotan, agintari *titereak* erabiliz, are eta zor handiagoak eragin.

Gerra hotzaren garaia zirenez, Mobutu bezalako diktadoreei baimendu zitzaizkien klase guztietako erokeriak egitea horretarako Kongo bezalako herrialdeak zorpetuz, aldi berean Mobutu aberastuz.



Grootek erakundeetako arduraduna izatearekin batera konpainia pribatuen aholkularitzan egiten zituen lanak. Horretaz galdetuz, *Le Soir* egunkariari, De Grootek erantzun: “Zer kulpak daukat nik lagun batek Ruandan meategi bat baldin badauka? Eta zer kulpak daukat bankura joateko orde lagun horrengana jo badut diru eske?”.

Inork ez zeukanez harentzat erreprotxurik, adinean aurrera joanik ere lan berean segitu du. Sobiet Batasunaren amiltzearen eta ondoren herrialde komunistetako konpainien pribatizatze masiboetan aurkitu zuen zer eginga. 1990eko hamarkadako lapurreta handian aberastu zen Errusiako eta ekialdeko Europako oligarkia berria; bestetik, Mendebaldeko banku eta multinazionalak erosi zuten bi sosetan Ekialdean balio zuen guztia.

1998an, nazioarteko erakundetako karguak utzirik Appian Groupeko lehendakari bihurtu zen. Egoitza nagusia Suitzan, 15.000 langile munduan zehar banatuak. Txekian erosi zituen, estatuak saldurik, Skodaren ingenieritza atala eta MUS meatzaritza konpainia. Operazioarako 500.000 dolar laga zizkion Alain Aboudaramek iruzurratitak salatu zuen justiziaren aurrean.

MUS erostean konpainiak kaxan zeukan dirua ostu eta horrekin pagatu zuten erosketaren zorra. Beren sakeletara eramanez 660 milioi franko suitzar, 534 milioi euro. Zorraz, kiebraz, pribatizatu, ostu... 2014an ere berdin funtzionatzen du. ■



1973tik 1994a bitartean Munduko Bankuaren eta NDFaren zuzendari exekutibo aritu zen De Grootek. Tartean egokitu ziren Mobuturi Mendebaldeko potentziek laguntzea matxinoak zanpatzen, Hego Amerikako hainbat herrialdetan (Txile, Argentina...) erakunde horien murrizketa politikak ezartzea kolpe militarren bidez. Eta baita Ruandako genozidioa ere.

Ruandakoa bereziki azpimarratu du Toussaintek, De Grootek nazioarteko erakunde itxuraz *garbien* zuzendaritzakoa izateaz batera Ruandan interes ekonomikoak zeuzkaten meatzaritza korporazioen aholkulari ere bazelako.

Jakina da 1994an hiru hilabete laburretan tutsi etniako milioi bat

jende hil zutela Ruandan, alderdi moderatuetako zenbait milaka huturekin batera. Ezin ukatuzkoa den genozidio hark, ordea, bazituen sustrai ekonomiko nabarmenak ere, gutxiegi aipatzen direnak.

1976tik 1994ra Ruandaren zorra hogeiz biderkatu zen, De Grootek buru zeukaten instituzioen gomen-dioz. Baina Munduko Bankuak eta NDFak, 1990an Juvenal Habyarimana diktadorearen gobernuari agindu zioten bere moneta %67an devaluatzea. Zientoka milaka nekazari, batik bat kafearen esportaziorako ari zirenak, miseria geratu ziren. Hondamendi soziala lehenik, genozidioa ondoren.

Wall Street Journal egunkari neoliberalak 1990an salatuak zituen De



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Adegik herren dator

BEHIN azaltzen ari nintzaion kazetari bati ARGIA 2012an soldaten %14 murriztu genuela. Edo galera banatu edo langile gutxiago, ez zegoela besterik. “Autoesplotazioa”, luzatu zidan. “Biziraupena”, ihardetsi nik. Adegiren proposamena entzutean, berriketaldi hura oroitu nuen.

Guk oso kontuan hartzen ditugu Adegik azaldutako balore horiek: langilearen parte-hartzea, konfiantza, komunikazioa, gardentasuna, akordioa... Giltzarri dira arrakastatsua edo lehiakorra izan nahi duen edozelako enpresarentzat, helburuak lortzeko ezinbesteko, pertsonaren asebetetzerako... Eta indarrean dira enpresa askotan, kapitala nagusi den horretan edo kooperatiboan. Batzuetan ondo, besteetan erdipurdi eta askoz gehiagotan gaizki. Azken hamabost urteetan enpresa eta kudeaketaren esparruan mila eta bat ikastaro eta jardunalditan errepi- katutakoak dira.

Horregatik harrigarri samarra da Adegik orain kontu hau berri gisa plazaratzea; eta akaso izango da berrikuntzarik, baina ez behintzat haien webgunean jarritako bideotan ematen dituzten azalpenetan. Pello Guibelalde Adegiko lehendakariak, bere aurkezpen hitzaldian bota zuen honetan guztian giltzarri den kontzeptu bat: “Emaitzei buruz ere hitz egiteko prest gaude”. Hain hedatua dagoen *management* kultura horretan sarri gertatzen da, aipatutako balore guztiez hitz egiten da, salbo eta irabazien banaketaz, banaketa hori soldatan doala pentsatu ohi baitu nagusiak, izan haren irabaziak dena delakoak. Askok pentsatuko du zergatik Adegik ez ote zuen

halako proposamenik egin adibidez 2003an, aipatzen dituen baloreak orduan ere bolo-bolo ari zirenean kudeaketa munduan.

Bere hitzaldiaren amaieran bota zuen beste klabe nagusietako bat Guibelalde: “Azken helburua zera baita, enplegua, ongizatea eta aberastasun soziala sortzeko edozelako jardueraren oinarri eta motore izaten jarraitu behar dutela gure enpresa eta enpresariak”. Enpresariak garbi aipatzen ditu, langileak, izatekotan, enpresa hitzaren baitan. Eta hor dago azken lan erreforma eta langileen eskubide murrizketen giltzarrietako, akordio ezaren aurrean enpresariari ematen diola erabakitze- ko ahalmena.

Adegiren diskurtso hau herren dator orain, lan erreformek boterea bere aldera eraman dutelako


Horregatik Adegiren diskurtso hau herren dator orain, lan erreformek boterea bere aldera eraman dutelako eta, funtsean, azken erabakia enpresariaren esku uzten duelako. Ez da atzo goizekoa lan harremanen gatazka, historian zehar boterekeriaz eta indarrez bideratu ohi izan da, eta hala da gaur egun ere munduko pertsona gehienentzat. Lan harremanen demokratizatzeko maila bat irabazi bazen, sindikatueta antolatutako langileen presioagatik izan zen nagusiki. Ondoren –komunismoaren mamua akuilu–, langile, enpresari eta estatuak ulertu zuten akordioa inposaketa baino emankorragoa zela denentzat. Hori da Europako lan harremanen azken 60 urteetako historia. Urtetik urtera desegiten ari den

ongizate estatuaren muina. Eta desegiten ari da, funtsean, kapitalismoaren indar nagusiek uste dutelako aberastasunaren klabea enpresariarengan dagoela; langileen aldarrikapenak lehiakortasunaren aurkakoak direla eta, beraz, hauen eskubideak murriztuz –malgusegurtasuna deitzen diote haiek– lehiakortasuna hobetu eta hazkunde ekonomikoa eta aberastasuna handituko direla.

Historia ez da errepikatzen, baina haren irakaspenak klabeak dira, atzera baino aurrera egiteko. Eta Espainian garatu den lan harremanen ereduarekin atzera egin da. Denetatik beharko da krisitik ateratzeko, horietako lehenetarikoa urtero “datorren urtean” krisitik ateratzen hasiko garela diotenak isilaraztea, bereziki agintariak. Baita Adegik aipatzen dituen balore horiek indarrean jartzea, serio eginez gero egoera asko hobetuko dituelako. Koldo Saratxaga eta bere NER (Harreman Estilo Berria) ereduak argi erakusten dute horiek eraginkorrak direla, batez ere boterea, kudeaketa eta irabaziak partekatzen direnean, eta –beste pista bat– hori ekonomia sozialean gertatzen da gehien. Beharko da hitzarmen sozial berria langile, enpresari eta gobernuen artean. Sindikatuek ere egokitu beharko dute hainbatetan, lehiakorra izatea bizirauteko ezinbestekoa baita. Horretan guztian eta gehiagotan asmatu beharko da. Baina hori gertatzen den bitartean, langileei haiek egoki ikusten duten gisan antolatu eta borrokatze- ko eskubidea ukatzea ez da ez zilegi, ez erreala. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Kultur Maratila

KONPOTA

Dxusturi Teatroa

2 lagunentzako bina sarrera

Otsailak 20 - 20:30

Artedrama Kultur Leioa

Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



Damba

Hautsi... eta izan zaitez zu

Miren Amurizaren
kolaborazioarekin!

5 CD opari

www.damba.info

3



Joseba B. Leinor

Instroak Vol.2

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze, GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Erlea gure sendagile

2 liburu

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2399. Argia)

HAMLET - BASAURI 1

- Jose Mari Goiburu (Donostia)
- Galdakaoko aek Euskategia (Galdakao)

HAMLET - OÑATI

- Martin Rezola Clemente (Gasteiz)
- Bergarako Udal Euskategia (Bergara)

HAMLET - BASAURI 2

- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)
- AED Elkarte (Arrasate)

ARGIA KAMISETA

- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
- Begoña Munduate Aierdi (Ataun)

HAMLET - BERMEO

- Jose Luis Hormaetxea Alboniga (Bermeo)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia




 **argia** SARIAK 2014



euskarazko
KOMU
NIKAZI
OAREN
SARIAK
urtarrilak 31
USURBILGO ATXEGA JAUREGIAN

Kazetaritzan eta komunikazioan urtean zehar nabarmendu direnen sari banaketa jarraitzeko aukera izango da arratsaldeko 16:00etatik aurrera

argia.com-en



ATXEGA JAUREGIA